

Mundutik  
azokara

JOSEBA SARRIONANDIA

# Mundutik azokara

**MERKATUA ETA AZOKA** 10

---

**1965** 12

---

**ASKATASUN ZIRRIKITUAN LIBURUAK**

Planeta urdina  
Euskal Herria Frantzia eta Espainian  
Kultura eta kontrakultura  
Sentitutako zartada eta belaun berria  
Liburuen protagonismoa

**1966-1971** 20

---

**DEMOKRAZIA ORGANIKOA  
ETA ERRESISTENTZIA KULTURALA**

Hazkunde ekonomikoa eta apertura apurra  
Bai mundu berria  
Gaur hemen orain danok  
Desacato a la unidad de España

**1972-1979** 28

---

**DIKTADOREAREN HERIOTZA ETA TRANTSIZIOA**

Laster, laster izango duk hik eta nik itxaroten duguna  
Diktadorearen heriotza ohean  
Trantsizio politikoa  
Euskaldunen arteko banaketa banderizoa

# 1980-1989

36

---

## **EUSKAL KULTURA INSTITUZIONALIZAZIOAREN ETA ERRESISTENTZIAREN ARTEAN**

Trantsizioa

Elefante zuria

Euskal kulturaren instituzionalizazioa eta napartheid

Ezinezko negoziazioa

Rock erradikala eta posmodernismoa

Berlingo harresiaren erorketa

# 1990-1999

46

---

## **EMADAZUE ORDENAGAILUA ETA NIK GLOBALIZAZIOA EGINGO DIZUET**

Emadazue ordenadorea

Zibilizazioen arteko talka

Pentsamentu bakarraren inposizioa

Guggenheim museoa eta eleberria

Oinazearen sozializazioaren sasoia

# 2000-2009

54

---

## **MENDE BERRIKO ILUSIO ETA DESASTREEN ARTEAN**

Mende aldaketa

Giza eskubideak eta giza desastreak

Hurrengo milaurtean ja

# 2010-2015

60

---

## **KRISI EKONOMIKOA ALA TENDENTZIA OROKORRA?**

Krisi ekonomikoa?

Krisi politikoa?

Krisi kulturala?


# Berrogeita hamar urte eta gero 66

---

## **ETORKIZUNA AZOKA EZEZAGUN BAT DA**

Zer oroitzen den ongien?

Ametsak kokatzeko leku baten bila



*Merkatua  
eta azoka*

Nik 6 urte nituen Azoka sortu zenean eta ez dut uste lehenengo Azoka hartan egon nintzenik, baina bigarren edo hirugarren urtean ja bai. Etxetik hurbil zegoen Andramariko abadearen eta marxanteren elizpea, euskal liburugileena bihurtzen zena domusantu egun euritsu, hotz eta arraroetan.

Durango ondo erdalduna zen, etxe barruan egiten genuen euskaraz, egitekotan. Leku publikoetan ez, euskara merkatuan entzuten zen bakarrik, baserritarrez betetzen zelako. Azoka beste gauza bat zen, ez gure aittitte-amamen gauza, baizik eta *Gazte gara gazte ta ez gaude konforme* ezkutuan abesten zutenena. Azoka elizpetik merkatu-plazara eramán zutenean ere, 'merkatua' eta 'azoka' gauza ondo desberdinak ziren Durangon: historiaren hobietara Neolitikokoa balitz bezala zihoan euskal gizarte zaharra ikusten zen batean, eta, Bernat Etxepareren deiari lau mendeko atzerapenez kasu eginda, Euskal Herria modernitatearen plazara jalgitzea nahi zuen gazteria ikusten zen bestean.

Historia epe luzetan esplikatzen da normalean. Esate baterako, Vere Gordon Childek hiru aro bereizten zituen humanitatearen bilakaeran: Paleolitikoa, mila-urte asko eta asko iraun zuena orain hogeita sei mende arte; Iraultza Neolitikoak laborantza eta abeltzaintza zabaldu zituen eta hogeita bi edo hiru mendez iraun zuen gizartea ekarri zuen; eta Iraultza Industrialak makinariarekin gizarte eta harreman eredu berriak ekarri ditu azken mende eta erdian. Guk sei epetan banatzen badugu azkeneko berrogeita hamar urteko aldia (ordubete baino ez litzakeena humanitatearen historia urtebeteko eskalara erreduzituz gero), ez da historia azkenaldian azkartu delako bakarrik, baizik eta mundu nahastu eta sasoi konplikatu hau konprenitzen saiatzeko gure ausardia ardura-gabearen ondorioa.

1965



Askatasun  
zirikitan  
liburuak

## PLANETA URDINA

Astronautikako albisteekin has gaitezke, perspektiba hartzeko. Alexei Leonov kosmonauta sobietikoa izan zen lehenengoa, Voskhod 2 aireontzitik kanpora irten eta 12 minutuz espazioan ibiltzen eta Lurra kanpotik ikusten. 1965ko martxoan gertatu zen hori. 1965. urtea, badakizue, geure kalendario gregorianoan: MCMLXV latinez, 5725-5726 kalendario hebreoan, 1385-1386 kalendario musulmanean eta 4661-4662 kalendario txinatarrean.

Alexei Leonov Batasun Sobietikoa deitzen zen lurraldera itzultzen ari zen artean, hain bare ikusten zen planeta urdinean, Estatu Batuak deitzen zen beste lurralde batean berrogei tornado ikaragarri formatu ziren 271 pertsona akabatzeko. Apirilaren 14an, gainera, Lansing Kansaseko kartzelan, Richard Hickock eta Perry Smith urkatu zituzten familia bat hiltzeagatik. Truman Capoteren *In Cold Blood* (Odol hotzez) liburuko protagonistak ziren.

Lyndon B. Johnson, Alderdi Demokratikoak, Estatu Batuetako presidentetza zin egin zuen bigarrenagoz. Otsailetik hasi ziren estatubatuarrak Ipar Vietnam napalmez bonbardatzen, martxoan desebarkuak hasi ziren, William Westmoreland jeneralak ziape-gasa erabiltzeko debekua altxatzeko eskatu zion Gobernuari. Baina igartzen zen ja konkista ez zela erraza izango: 120.000 soldadu ez zirela nahikoak, 400.000 beharko zirela gutxienez Vietnam okupatzeko, informatu zion Pentagonoak Presidenteari azaroan.

Vietnam aski ez-eta, Estatu Batuen makinaria militarrik Dominikar Errepublika inbaditu zuen, "komunistak islaz ez jabetzeko eta turista amerikanoak babesteko", Johnson presidenteak anuntziatu zuenez. Ikasle gazteak kartilla militarrik erretzen hasi ziren Kaliforniako Berkeley Unibertsitatean. Poliziak andanaka arrestatzen zituen, beltzak balira bezala. Aldi berean, Martin Luther King, kartzelara sartu eta atera zebilen Alabama aldean, beltzen bazterketaren kontrako manifestazioak antolatzeagatik. Malcolm X, berriz, hil egin zuten New Yorken.

Kubatik alderantzizko albistek zetozen aspalditik. Fidel Castrok anuntziatu zuen Kubatik atera nahi zuen guztiak ateak zabalik zituela, eta urte gutxiren buruan Kubako burgesiako 250.000 pertsona mugitu ziren samaldan Estatu Batuetara, *Freedom Flights* (Askatasun hegaldiak) deitutako bidaien bidez. Urrian, Fidel Castrok beste anuntzio bat egin zuen: Ernesto *Che* Guevarak islako kargu politikoak utzi eta alde egin zuela. Bi Vietnam, hiru Vietnam, lau Vietnam sortzeko deia egin zuen Chek, eta argi zegoen amerikanoek kapitalismoaren inperioa zabaltzen ari ziren artean Chek erresistentziaren eta iraultzaren artxipelagoa hedatzeko asmoa zuela. Kubatarrek gerrilla berri bat bultzatu zuten Kolonbian, ELN (*Ejército de Liberación Nacional*). Palestinan eta beste bazter askotan ere fundatu ziren urte hartan halakoak.

Ez zen batere hotza Gerra Hotza. Oso gogorra zen CIAk kudeatzen zuen sistema kapitalistaren defentsa. Indonesian, esate baterako, Suhartoren eskadroiek 10.000tik gora komunista hil zituzten 1965 hartan, 500.000tik gora akabatzeko hurrengo hogeitun urteetan, 1998 arte iraungo zuen diktaduraren oinarriak eraikitzen hasteko. Komunismoa komunismoaren barruan ere ez zegoen hain lasai. Mao Tse Tung eta Lin Piao, Alderdi Komunistaren buroraziaren kontra, Iraultza Kulturala abiatzeko ideia ari ziren zabaltzen.

Nazio arazoak ere baziren bazterretan, hala nola Pakistan eta Indiaren arteko gerra Katxemi-ragatik. Eta beste mila.

## EUSKAL HERRIA FRANTZIAN ETA ESPAINIAN

Orokorretik partikularrera jausiz, Frantzia eta Espainia aipatu behar Euskal Herria orduko.

Abenduan, Charles de Gaullek bigarren bueltan irabaziko zizkion hauteskundeak François Mitterrandi. Hegazkin supersoniko frantses bat aurkeztu zen *Concorde* izenarekin. Aljeria eta Maroko independenteak ziren ordurako, baina ez zoriontsuak oraindik. Houari Boumedienneren Kontseilu Iraultzaileak gobernua ebatsi zion Ahmed Ben Bella presidenteari. 1965ean, Marokoko errege Hassan II.aren oposizioko buru Mehdi ben Barka sozialista bahitu eta desagerrarazi zuten, non eta Parisen.

Espainian Francisco Franco zen buru, txepela eta barre-gabea, eta hark ezarritako sistema politikoari “demokrazia organikoa” iritzi behar zitzaion. Diktadurak aldaketa ekonomiko eta politiko batzuk egin zituen 1959tik aurrera, Estatu Batuen patroziniopean. Hala, frankismo tradizionalak teknokraziari eta bereziki Opu-seko jendeari egin zion lekua. *Plan de Estabilización* deitu zitzaion politika ekonomiko berriari, ordura arte nagusi izan zen politika autarkikotik bereizteko, 60ko hamarkadan nabaritu zen hazkunde ekonomikoaren oinarriak ipini ziren. *Apertura* txiki bat ere gertatu zen, Manuel Fraga Informazio eta Turismo ministroak prestatutako *Ley de Prensa e Imprenta* berrian islatuko zena. Estatu Batuetako Dwight David “Ike” Eisenhower presidentearen bisita argi utzi zuen



Estatu Batuek babes publikoa eman ziotela Espainiari, Europan komunismoa ekiditeko gotorleku egokia zelakoan diktadura espainola. *Nodoan* ikusi ahal izango litzateke Francisco Francok, birritan baino ez duela barre egin: Hitlerrekin Hendaian 1940an eta Eisenhowerrekin Madrilen 1959an.

1965. urtea albiste bitxi eta, agian, ustez baino inportanteago batekin hasi zen: Espainian Gobernua onartu zuen Ebanjelioak eta epistolak hizkuntza erregionaletan irakur zitezkeela. Vatikanoko Bigarren Kontzilioak zekartzan berrikuntzak ziren, lekuan lekuko hizkuntzan emango zirela mezak, latinez ematen baitziren ordura arte. Vatikanoko Bigarren Kontzilioaren izenean, Pablo VI.ak anuntziatu zuen, baita ere, Kontzilio Ekumenikoak gaia zehazki ikertu ondoren erabaki zuela judutarrak herri gisa ez zirela Jainkoa gurutziltzatzearen arduradun. Bestalde, Erromako Eliza katolikoaren eta Konstantinoplako Eliza ortodoxoaren elkarren eskumikuak anulatu zirela, 1054tik baitzeuden biak, batak bestea eskumikaturik.

Eliza egokitzen ari zen. Ez da sekretua Eliza egokitzearekin ahulduko zela, beldurrean oinarritzen baitzen hein handi batean bere eragina. Infernua ere alegiazkoa bazen, nori ardura zitzaion Jainkoa...

## KULTURA ETA KONTRAKULTURA

T. S. Eliot hil zen 1965 urtean, eta William Somerset Maugham, eta Junichiro Tanizaki, eta Winston Churchill, eta Le Corbusier (Charles Edouard Jeanneret), eta Albert Schweitzer, eta Nat King Cole, eta Stan Laurel, Lodia & Argala bikoteko mehea.

Artean, Max Perutz biologoa hemoglobinarene egitura ikertzen ari zen, ADN sekuentzietako aldaketak deskubritzen zituela. Jim Clark zen Formula 1eko txapelduna Indianapoliseko 500 miliatan, Jacques Anquetil sartzen zen lehena helmugara parte hartzen zituen karrera gehienetan, eta Mariano Harok irabazi zuen Nazioen Europako Kopa ez dakit zenbat mila metrotan.

Vittorio de Sica Oscarra irabazi zuen *Ieri, oggi e domani* (Atzo, gaur eta bihar) pelikularekin. Literaturako Nobel Saria Mikhail Sholokhov komunistari eman zioten. Iraultza Sobietikoari begira egon zen zinea ere urte hartan, *Doctor Zhivago* estreinatu baitzen, Omar Sharifek antzeztzen zuela Yuri Zhivago eta Julie Christiek Lara. Iraultza Sobietikoan giroturiko maitasun ezinezkoa zen Boris Pasternakene nobelaren gaia.

Baina musikarentzat izan zen urte hura iraultzailea, era magikoan sinkronizatu zelako aldaketa soziopolitikoekin mundu guztian. Ingelesez, *Beatlesak* Elvis Presley bisitatzera joan ziren honen Gracelandgo etxera. Elizabeth II.ak Britainiar Inperioko partaide izendatutako Liverpooloko lauek *Help!* filmea egin zuten, gainera. Bob Dylanek marihuana ezagutarazi omen zien Beatleseiei. 1965eko uztailean, Newporteko jaialdiko saio mitikoan, Dylanek lurrikara bat eragin zuen folk musikaren munduan tresna elektrikoak erabili zituela. *Like a Rolling Stone* bezalako abestiak

interpretatzean, beste konbentzio batzuk ere gainditzen zituen bere intimitateen azalpenarekin eta sofistikazio literarioarekin. *Rolling Stones* bandak sasoiko gazteen frustrazioa azaldu zuen abesti lotsagabe eta lizunean: (*I can't get no*) *Satisfaction*. *The Who* taldeak, berriz, himnotzat har zitekeen abesti bat asmatu zuen: *My Generation*.

James Brown, *Papa's Got A Brand New Bag* abestiarekin, funk egiten hasi zen bere erritmo-makinarekin. Beltzentzako ohiko musika gozoegiaren kontra, afrikar erritmoak eta hiri modernoan larritasunak gainditzen zuen melodia. Beste batzuek ere doinu berriak ekarri zituzten: BB (*Blues Boy*) Kingek *Live at the Regal* aurkezten zuen, Chicagoko Regal antzokian grabaturiko kontzertua, eta John Coltrane jazzmana ere gizartea hobetzeaz eta bizitza transzenditzeaz ari zen *A Love Supreme* obran. Urte berean, Jim Morrisonen eta Ray Manzerekek *The Doors* banda sortu zuten (William Blakeren lerro batetik harturik izena: "Pertzepzioaren ateak garbituz gero dena agertuko litzateke den bezala, infinitua") rock psikodelikoa egiteko.

Bat-batean, pop musika itzelezko negozio bihurtu zen-eta, Andy Warhol *The Velvet Underground* taldearen produktore bihurtu zen. Euskarri moduan *long play disko* eredu zabaldu zen orduan: bi abesti arrakastarako eta hamar betegarrirako orduko industriarentzat, baina formatu hori, elepea, musiko guztien moldea bihurtuko zen laster, idazlearentzat liburua zen bezala.

Halako unibertitateetako kanpus berdeetan etzaten ziren gazteak, kontsumismoaz eta gerraz, hipokresiaz eta mediokritateaz gogaituta, Otis Redding, Donovan, *The Byrds*, Johnny Cash edo edonor entzuten, askatasunaz eta bakeaz, naturaz eta maitasunaz amesten. Urte hartan hasi zen *hippie* hitza zabaltzen, San Franciscan edo New Yorken, konfortaren kanposantutik irten eta, marihuanaren edo LSDaren laguntzarekin batzuetan, ordutegirik eta debekurik gabeko eremuetara alde egiten zuten gazteak izendatzeko.

## SENTITUTAKO ZARTADA ETA BELAUN BERRIA

1965ean Plazido Mugikak bere hiztegia argitaratu zuen, hogeita hamabost urte luzez berehala zapata-kaxatan bildu ondoren hartarako fitxak. Perla ederrak aurkituko ditu haren liburu mardulean murgiltzen denak: *anarquismo* = 'lege-etsaigo'; *ateismo* = 'ateokeria', 'Jainko-gabeke-ria'; *enfermedad venérea*, 'eritasun loi'; *evolucionismo* = 'darbinkeria'; *fornicar* = 'aragikeria egin', 'loikerian ari'; *insumiso* = 'ezigaitz'; *liberalismo* = 'liberalkeria'; *masturbarse* = 'onankeria egin'; *menstruación* = 'astagaitz'; *prostitución* = 'ema-galdukeria', 'emaloikeria', 'urdainkeria'; *rebelde* = 'erri-nasle'; *sifilis* = 'andramin'; *sodomita* = 'sodonkeritsu'... Lege zaharreko euskaltzalea zen eta haren lan eskergak defektu bat besterik ez zuen: hitz aldaerak, sinonimoak edo neologismoak kriterio askorik gabe biltzea.

1965eko udan hasi zen Bilboko Herri Irratia euskara irakasteko saioa emititzen Xabier Peñaren gramatika-liburuarekin, eta Peñaren liburua erosteko ilarak egin ziren irratiaren atarian, eta hirugarren egunerako agortu zen 2.000ko tirada. Udazkenerako, Donostiako Herri Irratia hasi zen antzeko ikastaro bat ematen Jon Oñatibiaren *Método de euskera radiofónico / Euskera irrati bidez* eskuliburuarekin.

Hamarkadarekin batera hasia zen berpizten euskararen aldeko mugimendua. Debekuen eta zailtasunen artetik, traben eta ezjakintasunen artetik, bazterketaren kontrako eta hizkuntza zahararren aldeko gogo, eta aldarte, eta ahalegin kolektibo bat sortu zen. Ikastolak hasi ziren sortzen umeentzat, alfabetatze eta euskalduntze klaseak helduentzat, aldizkariak eta irratiak antolatu ziren. Euskara batuaren oinarriak finkatu ziren, eta bertsolariak, abeslariak, idazleak ezagutzen hasi ziren.

Belaunaldi berri bat heldu zen, Rikardo Arregik idatzita utzi zuenez: *“1960 urte inguruan azalzen da euskal arazoetarako belaun berri bat. Urte hori ezkeroztik, behar bada pixka lehentxoagotik euskal adimena eta euskal sentipena berritu egiten da, bere baitan zartada bat sentitzen du eta ordu ezkeroztik gertaera hau, belaun berri baten esnatzea kontuan hartu gabe ez dago aztertzerik ez euskal kultura, ez euskal politika, ezta ere euskaldunen artean dabiltzan ideologiak. Hau da azken urteotako gertakarik bortitzena. Gure histori gertuaren azalpenik ikusgarriena”*.

Mikel Laboak ere euskal musika modu magikoan sinkronizatu zuen egoera politikoarekin eta belaunaldi berriarekin. 1962an eta 1963an hasi zen kanta zaharren bertsioak egiten, *Oi Pello Pello* edo *Bereterretxan kantorea*, erreferentziatzen hartuta Jorge de Riezuren kantutegia eta Baionako Museoa argitaratutako diskoak, abesti berriak ere egiten zituen artean. Zaragozan abestu zuen lehenengoz euskaraz, euskal estudianteez antolaturiko jaialdian, eta abeslari karnet ofiziala atera zuen: *“artista de circo y variedades”*. 1964an Bartzelonara joan zen, mediku lanean, eta *Setze Jutges* taldea ezagutu zuen. 1965eko udaberrian, talde-idea horrekin elkartu ziren Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Josean Artze eta abar. Ea zergatik kantatzen zituen abesti zaharrak galdetu zioten Mikeli 1965eko udan *Zeruko Argian* egin zioten elkarrizketan. *“Denak zaharrak?”*, esan zion kazetariak, ez zegoelako modan, *“gaur eguneko musika”* bat lortzea zelako sasoi hartan denen helburua. Ja galzorian zegoen euskal kanta tradizionala errekonstruatu beharra azpimarratu zuen Mikel Laboak euskal kanta berria egiteko. Aitzindaria izan zen Mixel Labegerierekin batera tradizioaren eta modernitatearen sintesian benetakotasuna bilatzen, modakoa zelakoan faltsua.

Walter Benjaminen esaldi bat gogorarazten digu Mikel Laboraren intuizio hark:

*“Edozein gauza egiazkoa iruditzen zaigu gauza hori galtzeko arriskuan gaudenean”*.

Eta euskararen errekonstruziorako herri oso batek hasi zuen ahalegina ere konprenitzen laguntzen du apika.

## LIBURUEN PROTAGONISMOA

Euskaldun ikasleek frantsesa ikasten zuten bigarren hizkuntza moduan (euskara ez zen lehenagoa, jakina), leitzeko bezainbeste, eta asko jausten ziren, Miguel Unamuno leituta, Jean-Paul Sartreren liburuetera. Gizajendearen bizitza errealitate erradikal bat dela esaten zuen Sartrek, eta arrazoi historikoa zela behinena. Modu subjektiboan biziko duen proiektu bat beteko duela bere mundualdian gizakiak, eta kontzientzia humanista eta unibertsal bat sortu beharko litzatekeela mugen gainera denontzat. Erraz identifikatzen ziren Sartreren jarrera anti-burges errebeldearekin, eta haren etika, estetika eta politika berri bat sortzeko ahaleginarekin. Emakumeentzat Simone de Beauvoir izan zen erreferentia *Bigarren sexua* liburuarekin.

Politikoki hain baztertua eta kulturalki hain erreazionarioa zen Espainiako diktadurak liburuak debekatu eta zentsuratu besterik ezin zuen egin. Komunismoa arriskutsua zen, euskara arriskutsua zen, sexua ere oso arriskutsua zen. Nazionalkatolizismo espainolaren eremutik kanpoko ideiak ezagutzeko eta trukatzeko espazio gutxi zegoen. Gazteek, muga pasatu eta beste giro irekiagoetara alde egiteko aukera zeukaten. Bestela, liburu debekatuak lortu eta klandestinitoki irakurri eta pasatzen ziren.

Liburuak tresna ezinbesteko bihurtu ziren kulturarako eta politikarako, eta paper berezia izan zuten hirurogeiko hamarkadan nabarmendu ziren bi tendentziatan: kulturaren politizazioa nabarmena gertatu zen, alde batetik, eta politikaren kulturalizazioa, bestetik. Ez Euskal Herrian bakarrik, mundu osoan politizatu ziren intelektualak, artistak, ikasleak, langileak eta abar. Eta alderantziz ere gertatu zen: praktika politikoak kulturalizatu ziren. Eta testuinguru horretan liburuak, liburu erreferentzial jakin batzuek, baina liburuakiko espektatibek ere, protagonismo berezia irabazi zuten. Kontua ez zen jendea liburu irakurtzen ari zela etengabe, baizik eta, liburuak irakurrita edo gabe, mugimenduak liburuaren erreferentziarekin gauzatzen zirela. Eman dezagun Marxen *Kapitala* hartzen zela erreferentziatza, liburu hori irakurrita edota, susmatzekoa denez, irakurri gabe. Batek Oteizaren *Quosque tandem!* miretsiko zuen, beste batek Krutwigen *Vasconia* hartuko zuen ezpainetan, eta beste harakoak Arestiren *Harri eta herri* eramango zuen besapean, sinbolo eta esperantza bihurturik bakoitzak berea.

Azken belaunaldia unibertsitarioa zen, gainera. Matrikulazio unibertsitarioak nabarmenki egin zuen gora, eta liburuaren demanda araberan hazi. Sektore sozial berri bat sortu zen, ordutik aurrera gizartean jarrera aktiboa eta bisibilitate soziala irabaziko zuena. Nekazaria aitzurrarekin bezala eta obreroa mailuarekin bezala, jende hori liburuarekin baizik ezin zen irudikatu. Programa eta praktika politiko iraultzaile eta kontrakulturaletan nabarmentzen ziren erreferentziatzko liburuak. ETAko kongresuak eta eszasioak, adibidez, liburu-arteak eztabaidak izan ziren hein handi batean.

Rikardo Arregik aipatzen zuen belaunaldi berriak dena aurkitu zuen oso desaginda, eta ezerezetik berreraiki behar zuen. Belaunaldi horrek apenas aurkitu zuen liburuarekin eskura bere jakin-mina asetzeko. Erbesteak gordetako tradizioa anakronikoa eta sektarioa zen, gainera, eta

gazte horiek beste zer bait behar zuten. Beste nonbait bilatu behar izan zuten beren gogo eta asmoentzako literatura, Parisen edo Hendaian, edota beren kabuz sortu. Liburuen bidez heldu ziren "euskaldunen artean dabiltzan ideologiak", ondo lekuz kanpokoak eta arraroak sarritan. Baina belaunaldi hori konturatu zen herrigintza kreazioa ere bazela, liburuez eta ideologiez aparte kultura bat eta herri bat eraiki behar zirela, eta liburuak sortu, publikatu eta zabaldu behar zirela horretarako.

1966



1971

Demokrazia  
organikoa  
eta erresistentzia  
kulturala

## HAZKUNDE EKONOMIKOA ETA APERTURA APURRA

1966ko urtarrilaren 17an hidrogenozko lau lehergailu erori ziren Almeriako kostaldean, karga nuklearra zeraman B-52 baten eta erregaia hornitzen zion hegazkinaren artean izandako talkaren ondorioz: hiru lehorrean, baina laugarrena itsasoan, ur sakonean. Zurrumuruak zabaldu ziren, itsasoan eroritako lehergailuaren erradiazio atomikoa kaltegarria izango zela, turismoa izutuko zela, eta Angie Duke enbaxadore amerikanoa eta Manuel Fraga, Mojacerreko parador nazionalaren inagurazioa profitatuz, bainatzeko elkartu ziren hondartza hartan, prentsari erakusteko espainiar kostaldea ez zela erradioaktiboa.

Estatu Batuen eta Batasun Sobietikoaren arteko norgehiagoka nuklearraren kontestuan, bai-nuaren eszenifikazioak adierazten zuen ez bakarrik han erradioaktibitate ez zegoela, baizik eta botere nuklearra kapital finantzieroaren esku zegoela espainiar kostaldearen birmoldaketa turistikoinmobiliarioan.

Ekonomia espainola eredu autarkikotik teknokratikora pasatzen ari zen, Gobernua hazkunde sistema legez aurkezten zen, seguritatea garantizatuta zegoela. Inperioaren peoia zen ja Estatu.

Halaxe anuntziatu zuen Manuel Fraga Iribarnek erreferenduma 1966ko azaroaren 15ean:

*“Todos los españoles tendremos la oportunidad de renovar a nuestro Caudillo la confianza en su persona, la esperanza en su obra y la seguridad de que él será quien pueda dejarnos el futuro de seguridad, de continuidad, de justicia y eficacia que todos deseamos”.*

Kaudilloari konfidantza botoa emateko aukera izango zuten espainolek. Langileek lau ordu izan zuten libre egun horretan botoa emateko, baina lau ordu horiek kobratzekotan, botoa eman izana frogatzen zuen zertifikatua ekarri behar zuten. Ez zenez kontrolatzen zenbat bider ematen zen botoa, hiri batzuetan boto gehiago izan ziren boto-emaille baino. Bozken %95,9 baiezkokoak

izan omen ziren, eta hala jarraitu zen alderdi politikorik gabe, hauteskunderik gabe, "demokrazia organikoa" deitzen zen harekin. Francok aldaketak egin zituen 1967an. Muñoz Grandes kapitain jenerala kendu eta Carrero Blanco bere adiskidea ipini zuen. *Opus Dei* bultzatzeko eta monarkia errestituzioaren ideia zuten. Matesako estafan nahiko zikinduta egon arren, Opusekoak nagusitu ziren 1969ko Parlamentuan. Eta momentu aproposa suertatu zitzaizen Juan Carlos izendatzeko erregegai. Francok mesfidantza handia zion Don Juani. Semeak, oster, leialtasunezko zina egin zien Francori, Mugimendu Nazionalaren printzipioei eta Estatuaren lege fundamentalei.

Ekonomiaren alorrean, Estatuak bultzaturiko desarrollismoak egoera ekonomikoa nabarmenki hobetu zuen. Sektore errurala gainbehera zetorren arren, mendebaldeko ekonomiaren hazkundera, erregaien prezio eta langileen soldata merkea, emigranteen eta turistaren dibisak batu ziren, industriaren eta zerbitzuen hazkundera eragiteko. Populazioaren batz besteko maila igotzeaz aparte, klase ertaina handitu zen. Ikaslegoa, batez ere unibertsitatean pasatzen zen jendea, ugaltu egin zen.

Hirietako industrializazioa alde batetik, laborantzaren pobretzea bestetik, emigratio itzela izan zen: eskualde batzuk bete eta beste batzuk husten ziren. Emigranteek onura ekonomikoa izango zuten, deserrotzearen truke. Joan zitezkeen atzerrira edo Estatuko hiri industrializatueta. Hirian bizimodu maila hobea zegoen eta, gainera, seme-alabak eskolatzeko ideia erabakigarria zen. Espainian, laborantza-lurraldetik hirietarako emigratio itzela izan zen, batez ere 1960tik 1975era bitartean. Epe horretan bi milioi pertsonak utzi zuten sorterriko etxe eta ofizioa, hiriren batean bilatzeko enplegua eta bizitokia. Extremadura, adibidez, hustu egin zen: 500.000 extremeñoek alde egin zuen, populazioaren %40. Horietatik asko Euskal Herrira heldu ziren.

Euskal probintzietako hazkunde ekonomikoa ez zen hainbeste etorri Estatuaren plangintzatik nola inizatiba eta inbertsio pribatutik. Industrializazioa itzela izan zen urte gutxitan, nekazaritza eta arrantza bazterrerako geratzen ziren artean. Fabrikak, tximiniak, garabiak, trenbideak, ontziak, erreka kutsatuak, tuberiak, kableak, keak, paisaia berezi bat zabaldu zen. Euskal Herri gehienak tailer handi baten antza hartu zuen, eta atzean pinudiak.

1968ko uztailean irabazi zuen Jose Manuel Ibar *Urtainek* bere lehen konbatea Ordiziko futbol zelaian, 17 segundu iraun zuen borrokaldian. Gero, 27 konbate irabazi zituen jarraian *Knock Out* bidez. 1970eko apirilaren 3an, Madrilan, Peter Weiland alemaniarra K.O.z lehertu zuen zazpigarren asaltoan eta pisu astunetako Europako txapela jantzi zuen. Ikusgarria ere bazen: Jose Manuel Ibar eta José Legrá, euskaldun baserritarra eta kubano beltza zebiltzan Espainiaren harrokeria paseatzen Europan barrena.

Zoriontsuak ginela esaten ziguten monjek, egunean birritan jaten genuelako, eta gainera gosaria, eta gainera merienda. Gure aitamek ez zuten halakorik izan gerraostean. Eta Afrikako umeek oraindik bi egunik behin bazkalduz gero ondo: hagaitik sartu behar genuen pagaren parte bat *Domunderako* itsulapikoan.



Artean, immigrazio itzela zihoan Extremaduratik, Andaluziatik, Galiziatik eta Gaztelatik euskal hirietara, baina bertako jendearen bizimoduak ere aldaketa nabarmena izan zuen. Kontsumo gizartea zen ja, eta uniformazio kulturala.

## BAI MUNDU BERRIA

Telebista muelle arraro moduan hasi zen sartzen etxeetako salara. Tresna inportantea bihurtu zen. Hurrengo belaunaldien umezaina izango zen.

1969an ja etxe gehienek telebista zuten Euskal Herrian. Lau etxetatik batek autoa erosi zuen. Jendearen mugikortasuna multiplikatzen zen, eta informazioa, eta laster nabaritutako ziren ondorio kulturalak. Hiru behintzat begibistakoak: dotrina katolikoaren eragina galtzen hasi zen; pertsonen arteko harremanak, eta batez ere erlazio sexualak, liberalizatzen hasi ziren; eta ohitura eta moda nazioartekoak, eta batez ere amerikanoen imitazioa, ia naturala bihurtu zen.

Baina hazkunde ekonomikoak belaunaldi gazte inkonformista bat ekarri zuen. Eszeptizismo existentzialistaren ondoren, obedientziaren eta estoizismoaren artean, askatasun ametsak piztu ziren berriro: Aljerian eta Kuban, Palestinan eta Vietnamen, Afrikan eta Asian. Eta hemen zergatik ez? Kapitalismoa, kolonialismoa, sasi-sozialismoa ere, zeren agian ez ziren hain desberdinak izango poliziaren bota beltzak Washingtonen, Pragan edo Bilbon, haien ostikada behintzat. Gizarte estu errepresiboaren aldean, bestelako zerbaitek behar zen: musika berria eta literatura berria, zine berria eta arte berria, gizarte berria. Eta hemen zergatik ez? Kultura sortzaile bat hasi zen egiten, *collage* kultural eta ideologiko itzelarekin.

Ematen zuen iraultza politiko bat zetorrela mundura, eta iraultza horrek erabateko aldaketa ekarriko zuela, eta iraultza hipotetiko hori argitzen zuten "euskaldunen artean zebiltzan ideologiek", baina gero ez zen benetako iraultzarik heldu, *hippien* komunak ere ilobei kontatzeko ipuin besterik ez ziren izango. Aldaketa kultural zabal bat gertatu zen, hori bai, jendearen eguneroko bizimodua eta jendeak askatasun pertsonalaz eta hainbat gairi buruz zeukan kontzepzioa aldatu zuena apur-apurka. Nolabaiteko inkonformismo bat ere iltzatu zen jendearen gogoan, iragan politikoa aldatu beharraren ideia, eta denak aldatu ziren, kontserbadoreenak ere, dena funtsean beti bezala mantentzeko asmoarekin izanik ere. Eisenhower atzean utzi eta aldatu beharra sentitu zen Estatu Batuetan, Eliza aldatu beharraz mugitzen zen Juan XXIII. Frantziak IV. Errepublikaren iragana atzean utzi nahi izan zuen. Eta Espainian, zer esanik ez, pasatua enterratu beharraz ari ziren batzuk eta besteak.

Iraultzak asturuen konfluentzia arraroengatik gertatzen dira unibertso sozialean. 1968ko maiatzean, aukeren angelua asko zabaldu zen, Sartrek esan zuenez. 1968ko maiatzak halako askatasun gose bat eta gauzak zerotik hasteko gogo bat islatzen zuen. Pragan ere antzeko motibazioa zuten

gazteek, edota Mexikon. Pariseko hormetan egun haietan Ohitura Handiaren aurkako agertu ziren pinturak gogoangarriak dira: “Izan errealista, eskatu ezinezkoa!”, “Gelditzen den pentsaera usteldu egiten da”, “Geure desirak dira errealitatea”, “Alkoholak hilko zaitu, hartu LSD”, “Ezker ofiziala prehistorikoa da”, “Poesia kalean ibiltzen da”, “Marxistak gara, Grouchoren jarraitzaileak”, “Lasai, 2 gehi 2 ez da beti 4”, “Larrua jotzea ondo dago, Maok dioenez, baina ez etengabe”, “Goazen lotara, antola ditzagun amets batzordeak”, “Izogailua behin eta berriz hartu beharrean, har dezagun boterea”...

Baina ez, politika ez zen hainbeste aldatuko. Kultura bai. Ez zen kontrakultura izan eragile nagusia, ezain kontrakultura ez zelako indartu alternatiba izateko bezainbeste. Baina iraultza kultural geldo bat zabaldu zen apur-apurka, iraultzarik gabe, eguneroko bizimoduko posibilitateak zabalduko zituen.

## GAUR HEMEN ORAIN DANOK

Euskal Herrian protesta asko zabaldu zen 60ko hamarkadan. Protestak, azken batean, bere burua ekonomia, kultura eta politikaren alorrean berrantolatzen ari zen gizarte bizi eta argi baten mugimenduaren azalpenak izan ziren.

1966ko uztailean Gerediaga Elkarteak antolatuta Garain Valentin eta Ramon Zubiaurre anaien omenezko erakusketa egin zenerako, fundatua zen Gipuzkoa aldean *Gaur* taldea, eta han, Garai-ko bilera hartan, Bizkaiko *Emen* taldea aurkezteaz gainera, Arabako *Orain* eta Nafarroako *Danok* taldeak ere hasi ziren osatzen. Ezagunak eta ez hain ezagunak, artegile baliotsuak zeuden ordu-rako: Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea, Eduardo Txillida, Rafael Ruiz Balerdi, Jose Luis Zumeta, Bizente Larrea, Agustin Ibarrola, Karmelo Ortiz de Elgea, Bizente Amezttoi, Pedro Oses, Juan Jose Akerreta, Xabier Morras eta abar.

1968an *Ama Lur* egin zen, Euskal Herriari buruzko dokumental luzea, edertasun bereziko irudiekin. Nestor Basterretxeak eta Fernando Larrukertek egin zuten, zinea egiteko hain beharrezkoa zen dirua, produktore handiren batengandik hartu beharrean, jendearen aportazio txikiekin bildurik.

1957an sortu omen zen lehenengo ikastola Bilbon, San Nikolas elizako gela batean, hamahiru haurrekin. Lokala apezpikuak kendu zien laster eta hurrengo ikasgela poliziak itxi zuen, atxiloketa eta isunekin. Elbira Zipitriak lehenago egindako ahaleginen ondoren, 1961ean Santo Tomas lizeoa zabaldu zen Joxemi Zumalabe, Karlos Santamaria eta Koldo Mitxelenari esker. Gasteizen, 1963an zabaldu zen Olabide ikastola. Iruñean, aurreko saiakerek porrot egin ondoren, 1965ean fundatu zen lehenengo ikastola, alegia bi ikastola banatuak, San Fermin eta Paz de Ziganda. 1969an sortu ziren Iparraldean ikastola eta Seaska elkarte Baionan, Argitxu Nobliaren etxean, gero Miarritzera eta geroago Arrangoitzera mugitzeko. Hiriburu erdaldunduetatik hedatu zen, beraz, ikastolen mugit-

mendua (Algorta, Pasaia, Igorre, Plentzia, Errenteria, Berriz, Hernani, Bermeo, Elgoibar, Durango...), eta uholde bihurtu zen laster. 1960an dozena bat ikasle ezkutu baziren ikastola klandestinoren batean. 1970rako, legeriak uzten zuen zirrikitu estuez baliaturik, 12.000 ikaslek ikasten zuten 120 bat ikastolatan. Eta 1981ean ja 69.000 ikasle izango ziren ehunka ikastolatakoak.

Ricardo Arregik, Iñaki Beobidek eta Mikel Lasak helduentzako alfabetatze ikastaroak proposatu zizkieten Euskaltzaindiari 1966ko urtarrilean:

*"Euskeraz dakiten geienek ez dakite ez euskeraz irakurtzen ez euskeraz idazten. Erri batek indartsu bizi nai baldin badu kulturaren beharra du ta gaur egunean kultura geien bat idatziaren bitartez zabaltzen da. Beraz Euskalerrriak erri bezela indartsu bizi nai badu idatziari bideak zabaldu behar dizkio. Ortarako bearrezkoa da euskeran analfabetoa den Euskalerrria alfabetatzea".*

Haiek eta Juan San Martinek eta Patxi Altunak osatu zuten lehenengo Alfabetatze Batzordea. Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Kepa Enbeitia, Begoña Arregi, Serafin Basauri, Manu Ruiz Urrestarazu, Jean Haritschelhar, Piarres Xarriton eta beste asko hasiko ziren laster alfabetatze eta euskalduntze kanpainetan lanean. Herriz herri eta isilean, lekuan lekuko gau-eskolekin batez ere, itzelezko lana egin zuen Alfabetatze eta Euskalduntze Mugimenduak...

1968ko ekainaren 21ean Neil Armstrongek oinak Ilargian pausatu (hura, gizakiarentzat pausu txiki hura, humanitatearentzat urrats handia zela ziola) eta ia aldi berean hil zen Rikardo Arregi auto istripuan, Mendaron, bigarren eskuko auto bat Gabriel Arestiri eramatera zihoala Ramon Saizarbitoriarekin.

Rikardo Arregi bidegile eta langile nekaezina izan zen, bere belaunaldia ondoen konprentitu zuena, bere belaunaldia asmatu zuen desipuingilea:

*"Ikonoklastak omen gara. Eta egia da. Sustraitik hasi nahi omen dugu. Eta horrela da. Lehen-dabizi desegin, gero jasotzeko. Estructura, moldea, muina ukitu nahi, azalezkoarentzat mesfidantzarik handiena izanik. Folklorekeria, baserritasun hutsa, kapitalismoa, burgesia, kontserbakorra, etb. gure esan eta idatzietan behin eta berriro kondenatuak izan dira. Hitz batean esateko, mitoa, ipuina eta besteratzeari desegin nahian, desipuitze gogorrean sartuak gara. Eta guztia gizonaren izenean, gizarte gizatiarrago baten izenean. Eta hortxe dago koxka".*

Rikardo Arregi hil zenerako, nabaritzen zen ja belaunaldi ikonoklasta horren obra: arte berria ikusten zen han-hemenka, politika berria ari zen klandestinitatean indartzen, literatura berria egiteko asmoa behintzat igartzen zen alde batean edo bestean, euskara berri bat sortzeko gogoia bezala. Euskara komunikazio-hizkuntza moduan erabili nahi zuen gazteriarentzat ezinbestekoa zen euskara batu eta moderno bat. Etxeko euskara zaharra noranahiko bihurtzeko itzelezko lana egin zuten Koldo Mitxelena, Gabriel Arestik, Federiko Krutwigek, Txillardegik eta, oro har, belaunaldi hark guztiak.

Mikel Laboa 1967an neuropsikiatra moduan hasi zen lanean Donostian, Aresti, Espriu, Brecht, Artze, Landart edo Leteren letrak abestuz, molderik modernoek nahasirik kantu zaharrekin. 1968an *Lekeitioak* serie esperimentalak hasiko zen lantzen. *Ez dok Amairukoak* belaunaldi haren soinu-banda izango ziren.

## DESACATO A LA UNIDAD DE ESPAÑA

Oztopoak itzelak ziren, baina era batean edo bestean gainditzen ziren. 1970an, Manuel Fragan ministerioak *Jakin* aldizkaria debekatu zuenean “sozialista eta separatista” zelako, *Jakinekoek* aldizkaria argitaratzeari utzi behar izan zioten, baina liburugintzari ekiteko.

Diktadura totalitarioa zen, eta erresistentzia ez zen kulturala bakarrik. Arestian esan dugu kultura politizatu eta politika kulturaldu egin zela. Bada, Estatuaren inposizioa bortitza zenez, erresistentzia armatua ere egin zitzaion. Eta enfrontamenduak forma bortitzak ere hartu zituen, gero luzarorako geratuko zirenak

ETA belaunaldiaren aspektu bat baizik ez zen, 60ko hamarkadan ezkutuan antolatu ziren ha- maika militantzia mota eta zereginetako bat baino ez. Zer egiten zuen ba sasoi hartan? Panfleto batzuk zabaldu, pintadaren bat hormaren batean, lehergailu txikiren bat oso noizean behin. Ez zen lan gehien egiten zuen erakundea, ezta ere garrantzitsuena beharbada, baina bai enfrontamendu zuzena proposatzen zuena eta, hawaitik, arriskatuena eta, errepresioagatik, bisibleena. Nola edo hala, beste zeregin isilpeko guztien osagarri erradikala. Hala, ETAn lerroetan berdin sar zitekeen CCOOetako langile bat nola Alfabetatze Batzordeetako irakasle bat, bakoitza bere lan-arloko beste zereginekin kontraesanean sartu gabe. Hain zuzen, ETAn militarizazioak beste zeregin horien bisibilizazio erradikala zekarren.

Adibide bat ipintzeko, 1963ko apirilean epaitu zituzten TOP (*Tribunal de Orden Público*) zeri- tzan salbuespeneko tribunalean Jon Aizpurua, Joserramon Luzarraga, Guillermo Mariñelarena eta Rufino Ahedo, paperak idatzi, multikopiatu eta zabaltzeagatik Bilbon. Eta fiskalak argi eta garbi adierazi zuten:

*“Escribir en vasco sin previo permiso es ya un desacato a la unidad de España”.*

Ez zen iraultza aldarrikatzea, ez zen Euskal Herri independente eta sozialista bat proposatzea: euskaraz egitea politikan ja delitu handia zen. ETAK, ezer gutxi eginda ere, Estatu bere onetik ateratzen zuen ia berez, agerian utziz haren izaera totalitarioa eta errepresiboa.

Gainera, nahiz eta euskal nazioaren aldeko borrokak eta langileriaren emantzipazioaren aldekoak elkarrengandik aparte eboluzionatu ordura arte, belaunaldi berrientzat borroka biak osagarriak baizik ezin ziren izan. PNVk eta PCEk errepresentatzen zituzten orduan bi tradizio desberdinak,

ETAk bereganatu eta gairitu nahi zituenak. Gairitu nahi, ez eztabaida eta kontraesanik gabe, jakina. 1966ko abenduan, esate baterako, erakundetik bota zituzten gero *ETA-berri* edo *Komunistak* deituko ziren taldeak.

1967ko martxoan, V. Asanbladak nazionalismo iraultzailearen printzipioak berretsi zituen. Helburua, euskal Estatu independente sozialista bat lortzea, ekintza-errepresioa-kontzientzia-ekintza dinamikaren bidez. Aljerian, Kuban, Vietnamen eta beste leku batzuetan indartuak ziren independentzia nazionalaren aldeko gerrillak, sozialismoa ere eraikitzen tematuak. 1968ko ekainean Jose Pardines guardia zibila hil zen kontrol batean, ustekabeko tiroketan, eta Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta ETAko liberatua hil zuen laster. Uztailean zehar izan ziren protesten ondoren, abuztuaren 2an ETAk Meliton Manzanos hil zuen, Donostiako *Brigada Politico Socialeko* torturadore ezaguna eta ETAk apropos hildako lehen pertsona.

Ekintza-errepresio-ekintza dinamika gogorra zen, atxiloketa pila izan ziren eta ETAren VI. Asanbladak hainbat gai birplanteatu zituen, bai independentismoa eta bai borroka armatua bera ere. 1970eko abendu hasieran, militarrek ETAren kontrako auzi handi bat eszenaratu nahi izan zuten Burgosen. Alta, epaiketa hura euskal iraultzaileen tribuna bihurtu zen frankismoaren kontra. Hainbat auzipetu heriotzara kondenatu zituzten, baina itzelezko mobilizazioak izan ziren Euskal Herrian eta Europa guztian, espainiar oposizioa ere mugitu zelarik kondenatuen alde. Eliza hierarkikoak ere parte hartu zuen protestetan, auzipetu batzuk apezak zirelako. Abenduaren 4an, Eibarren, Polizia tiroka hasi zen manifestazioaren aurka eta Roberto Perez Jauregi hil zuten, 21 urteko gaztea.

Azkenean, Francok heriotza zigorrak barkatu behar izan zituen. Mobilizazioak itzelak izan ziren, eta Burgosko epaiketaren egunetan eta ondoren asko indartu zen borroka anti-frankista, eta, partikularki, ETA V. Gainera, EGiko militanteak multzoka sartu ziren erakunde armatura, eta Burgosko auzipetu batzuek, horien artean Mario Onaindiak, sostengua eman zioten.

1972



1979

Diktadorearen  
heriotza eta  
trantsizioa

## LASTER, LASTER IZANGO DUK HIK ETA NIK ITXAROTEN DUGUNA

Baina ez zen laster izan, berandutu zen ikaragarri. Analogiatzat hartuz orduan modan zegoen liburu bat, 'Godoten zain' egotea izan zen Demokraziaren zain egotea.

"Hau ez da luzarorako izango", esaten zuen jendeak, baina Francisco Franco ez zen hiltzen.

Eta, Franco gainera kenzeko indarrak ez zegoenez, pazientzia hartu behar aldaketa nahi zuen jendeak. Ea hura hilda gero behintzat gauzak egokitzen ziren.

Gaur egun, frankismoeko bizimodua azaltzeko badaude esaldi obligatu batzuk: harrizko gau luzea zela esan zuen Celso Emilio Ferreirok, harriaren metaforari jarraituko zion Gabriel Arestik, eta iluntasunarenari beste batzuek. Baina esan behar da frankismoak ere, beste sistema sozial iraunkorrek bezala, akordio estuak zituela naturarekin eta ezinbestekotasunarekin. Errepresioa gogorra zen, baina jende gehienak ez zuen sentitzen, eta ikusten ere ez akaso, buruan beste ardura batzuk zituelako, hala nola hozkailua edo telebista edo *seiscientosa* erostea. Espainian, frankismoa soziologia bat zen, baina kultura material eta espiritual ere bazen, eta *status quo* bat. Anti-frankismoa ez zen ahobatezkoa, baizik klase zapalduen eta nazionalitate periferikoen gauza, eta intelektualena beharbada. Frankista askorik gabeko frankismoa zen nagusi, orain monarkikorik gabeko monarkia nagusi den bezala. Katalunian eta Euskal Herrian diktaduraren kontrako borroka zabalagoa zen, baina Espainia sakonean eta gizarte sektore nagusietan, errejimena normalitatearekin identifikatzen zen.

1966ko prentsa legeak apertura estu eta ambiguo bati utzi zion lekua. *Blanco y negro*, *Destino*, *Triunfo* eta halakoak leitzen ziren, adierazpen askatasun oso mugatuarekin. Eta ironiak ematen zituen posibilitateengatik, umore-aldizkariak bihurtu ziren jende askorentzat erreferentzia. *La Cordorniz*, sortzez erdi falangista zen arren, Antonio Mingoteren marrazkiekin Elizaren eta Ejerzitoaren Espainia lehor eta triste satirizatzen espezializatu zen. 1972an *Hermano Lobo* agertu zen kioskoetan: Chumy Chúmez, Forges, Perich, Vázquez Montalbán, Summers, eta Ops (*El Roto*),

Bernardo Arrizabalaga bizkaitarra zuzendari zela. *"Semenario de humor dentro de lo que cabe"* hark politikarekiko jarrera estoiko-zorrotza eta paradigmaticoa bihurtu zen hizkera bat ere sortu zuen. 1973an *El Pappus* agertu zen, bere burua satiriko eta neurastenikotzat aurkezten zuen aldizkaria. Eta 1974an *Por Favor* zabaldu zen, *Hermano Loboren* eszisia, Perich, Vázquez Montalbán, Forges, Máximo eta beste askorekin.

Umore apur batekin, beraz, baina Godoten zain jarraitzen zuen jendeak, eskubide gutxirekin eta debeku askorekin, demokrazia gutxirekin eta preso askorekin. Guardia Zibilaren *landroverrak* ziren nagusi lurralde erruralean, eta grisen ibilgailuak hiriburuetan. Makinariak ondo funtzionatzen zuen, bestelakorik ezinezkoa egiten zuen behintzat. Protestak baziren, baina gutxi eta lekuan lekukoak. "Askatasuna" leitzen zen Bilboko taberna-komunen batean. Ikurrina edo bandera errepublikanoa zeinek marrazten jakin aritzen ziren 14 urteko umeak erdi ezkutuan eztabaidan. "Amnistia" hitza ikusten zen Madrileko edo Bartzelonako geltokietan zein herri txikietako hormetan.

Alderdi klandestinoak ugaltu ziren, erakunde txiki sekretuak. Bata bestearekin neutralizatzen ziren ideologia aldetik, dogmatismoak gaindituz, jardun politiko bateratura beharturik. Hainbat, ideologia euskaltzale independentistakoak (PNV, ANV, ELA), eta hainbat, ideologia marxista-leninistakoak (PCE, MC, LCR, ORT). ETAk bietatik zuen, eta gauza izan zen behintzat inolaz ere mugitu ezin zitekeen sistema hura mugiarazteko ilusioa sortzeko. Felipe Huarteren bahiketarekin ikusi zen, Torfinasako 140 langile kalera bota zituztenean, langileek eta sindikatuak luzaroan lortu ez zutena borroka armatuak egun batzuetan lor zezakeela. Edo ez, borroka armatuak era askotako ondorioak zituelako, halakoak eta bestelakoak, baina kontraesanak behintzat agerian uzten zituen. 1973ko Aberri Egunean omenaldiak egin zitzaizkien Guardia Zibilak ordura arte hildako ETako militanteei: Txabi Etxebarrieta, Benito Mujika, Mikel Martínez de Murguía, Jonan Aranguren, Jon Goikoetxea eta Eustakio Mendizabal.

Kaudilloa bera izan zen, 1936tik aurrera, *Jefe de Estado* eta *Presidente de Gobierno*. 1973ko uztaillean, bigarren kargua utzi zuen, Luis Carrero Blanco almirantea izendatuz Gobernuko Presidente, errejimenaren iraupena ziurtatzeko (Estatuburu izateko Juan Carlos I. zegoen izendatuta Franco hiltzen zenerako). Carrero Blanco aspaldidanik zen ezinbestekoa Francorentzat, errejimenaren barne oreka mantentzeaz gain bere anti-komunismo militaristak Estatu Batuen babesa ziurtatzen zion-eta. Gainera, oposizioaren hariak marionetenak balira bezala mugitzen ere abila zela jakin da denborarekin. Felipe Gonzalezen pertsonaia, esate baterako, almiranteak indartu eta babestu zuela kontatzen dute orduko zerbitzu sekretuetakoek.

ETAk Luis Carrero Blanco bahitzeko ideia izan omen zuen, trukean preso politiko guztien askatasuna eskatzeko, baina Gobernuko Presidente zenetik bahitzea ezinezkoa izango zelakoan, hiltzeko planari ekin zioten, 100 bat kilo goma-2 ezarririk, haren kotxea pasatzean lehertzeko, Madrileko Claudio Coello kalearen azpian.

1973ko abenduaren 20an izan zen. Frankismoaren mendekua gogorra izango zen eta, euskaldunik ez zuenez aukeran, hurrengo martxoan ja Salvador Puig Antich exekutatu zuten, Heinz Ches zeritzan izengabe aberrigabe batekin batera, politika kriminalitzeko. Mendekua luzatu egingo zen, zeren Jose Miguel Beñaran *Argala* Carrero Blancoren atentatuaren urteurrenean hilko zuten 1978an.



## DIKTADOREAREN HERIOTZA OHEAN

1974ko apirilaren 25ean ofizial militar gazteen altxamenduak Portugalgo Gobernu eta errejimen salazarista eraitsi zituen: Krabelinen Iraultza deitu zen, *Revolução dos Cravos* portugesez, ia tirorik gabe egin zelako eta, udaberria zenez, fusilen kanoi puntetan loreak luzitzen zituztelako. Jose Afonsoen *Grândola Vila Morena* abesti debekatua erabili zen pasahitz gisa. Jende askok abesten zuen *Grândola* eta pasatzen zuen Espainia eta Portugal arteko arraia, bestaldean askatasuna sentitzeko.

1975eko hasieran Carlos Arias Navarrok Estatu Batuei abisatu zien Lisboa ezkerreko gobernu nagusitzen bazen prest zegoela Portugalgi gerra deklaratzeko. Aldi larria izan zen Francisco Francoren zahartzaro eta gaixotasun luze amaigaitza. "*Acaba de superar satisfactoriamente la crisis*", entzuten ziren behin eta berriz informe medikoak. Ohiko txistea izaten zen, Juan Carlos erregegaia heltzen zela haren ohe ertzer ministro guztiekin batera: "Zure ministro guztiekin etorri naiz, *Su Excelencia*, agur esatera berorri". Eta Francok erantzuten omen zuen: "A, bai? Eta nora zoazte ba?"

Euskal Herrian, poliziaren errepresioa itzela zen. Kontrolak, atxilotetak, torturak edo kartzelaratzak etengabeak ziren, eta salbuespen egoera dekretatzen zen lantzean behin. Guardia Zibilak, Polizia Armatuak eta "Inkontrolatuak" deitzen zirenek okupazio-armada bat osatzen zuten. Arias Navarro demokrazia mintzo zen, baina haren demokrazia gaiztakeriaren debeku eta errepresioan oinarritzen zen, eta harentzat gaiztakeriaren trinitatea hau zen: 1) Komunismoa, "*en sus tendencias, grupos o manifestaciones*", langileen edozein erreklamazio barne; 2) Separatismoa, eta ez zitzaion inolako espaziorik utzi behar Espainia nazio moduan zalantzan ipiniko zuen ezeri; 3) Errepublikanismoa, kaudilloaren ondorengo Estatuaren tankera monarkikoa ere eztaba daezina baitzen.

Joan, Franco ez zen inora joango arerio batzuk aurretik eraman gabe. 1975eko irailean, FRAP (*Frente Revolucionario Antifascista Patriota*) eta ETA erakundeetako kideak auzi desberdinetan kondenatu zituzten eta goiz berean exekutatu. Irailaren 27an, polizia armatu eta guardia zibil boluntarioek fusilatu zituzten FRAPeko José Luis Sanchez-Bravo, Ramón García eta Humberto Baena, Hoyo de Manzanareseko Tiro Poligonoan. Polizia Armatuko boluntarioek hil zuten Anjel Otaegi Villalóngo kartzelan, Burgosen. Guardia Zibileko boluntarioek hil zuten Juan Paredes *Txiki*, Sardanyolan, Bartzelonan. Frankismoaren kontrako protesta gogorak zabaldu ziren mundu guztian, eta batez ere euskal probintzietan. Galtzen zuen militante bakoitzeko hamaika irabazten zituen ETAK.

1975eko azaroaren 20ko goizaldean hil zen, ohean. Arias Navarro Gobernu Presidenteak negar zotinka anuntziatu zuen telebistan: "*Espanoles, Franco ha muerto...*" Albistegia pozik entzuten zutenek ere sinesgaiztasun puntu bat izango zuten apika, "*Franco acaba de superar satisfactoriamente su autopsia*" edo antzeko zerbait entzuteko beldurrez momentu batetik bestera, ekipo medikuak sinatua. Diktadura luze eta arrakastatsuen ondoren hil zen Franco Franco, dena lotuta eta ondo lotuta utzita gero.

Ordezko hautatua Juan Carlos I.a zen, jakina, eta bi egunetara koroatu zuten Gorteetan:

*"Hoy comienza una nueva etapa de la historia de España... Una sociedad libre y moderna requiere la participación de todos en los foros de decisión, en los medios de información, en los*

*diversos niveles educativos y en el control de la riqueza nacional. Hacer cada día más cierta y eficaz esa participación debe ser una empresa comunitaria y una tarea de gobierno”.*

Denen artean erabaki behar zirela gauza guztiak, zioen errege berriak telebistan, baina denen buru bera izatea, eta hitzok proposatu ahal izatea bera ere, Diktadorearen erabakia izan zen, ez beste guztiena, baizik gehien nahiaren kontrakoa.

Baina hala behar zela ematen zuen. Normaltzat eta naturaltzat hartu zuen jende askok. Sasoi hartan Uri Geller ere agertzen zen telebistan, José Maria Iñigo bilbotarraren programan, tenedo-reak okertzen.

## TRANTSIZIO POLITIKOA

Trantsizioa zelan gertatu zen Espainian ezin da konprenitu kontuan hartu gabe Franco hil baino lehenagoko bi gertaera historiko: Pinocheten armadaren estatu-kolpea Txilen 1973an, eta Krabelinen Iraultza Portugalen 1974an. Bi gertakari horiek beldurraren erreferentzia izan ziren, bi Espainiek beldurra ziotelako bata besteari: *“una de las dos Españas ha de helarte el corazón”*. Ezkerrak Txilen gertatutakoaren beldurra zuen, bazuelako motiborik asko Ejertzito espainolaren mamuaz izutzeko.

Bi pertsona luzaroan egon daitezke mahai baten inguruan inora ez doazen gauzez solasean. 1977ko otsailaren 27an Adolfo Suárezek eta Santiago Carrillok tratatu bat egin zuten, arratsaldeko lauetatik gauerdira arte luzatu zen bilera batean, eta Espainiako Alderdi Komunistaren legalizazioaren truke Santiago Carrillok monarkia eta bandera espainol bikolora onartzeko konpromisoa hartu zuen. 1977ko apirilaren 9an legalizatu zuen Suárezek PCE alderdia. Ez zen Carrilloren arbitrariedade ordea, zeren Alderdiaren Komite Zentral anpliatuak, gaia Madrilen bi egunez eztabaidatu ondoren, apirilaren 16an egindako botazioan berretsi egin baitzituen erabaki horiek, 169 boto alde, inor ez kontra, eta 11 abstentziorekin.

Adolfo Suárez, bere aldetik, pertsonaia politiko arketipikotzat har daiteke. Errejimenak bazezkieen sostengatu ezineko posizioak zituela alor askotan eta aldatu beharra zuela, bestela aldaketa kontrolaezina izango zelako. Frankismoa bunker bat bezala defendatu behar zela pentsatuko zuten batzuek, hitlerismoa defenditu zen bezala Berlinen II. Mundu Gerraren azken egunetan, baina Portugalen gertatuak beste irtenbide bat iradokitzen zuen. *Fuerza Nuevako*en-eta kontra, Suárez izan zen frankismoaren sostengatu ezineko posizioen desmontaiaren arduraduna, erretiradaren kudeatzailea deitu daitekeena, Mikhail Gorbachov izango zen bezala geroxeago Errusian egitura sobietikoen desmontatzailea. Oligarkiarentzat eta egitura frankista nagusientzat maniobra gatopardianoa ere bazen hura, Giuseppe Tomasi di Lampedusaren nobelan azaltzen den adieran:

*“Eta orain zer gertatuko da? Bah! Tiroteo ondoriogabe batzuekin hornituriko saiakerak eta, gero, dena aldatu arren dena izango da berdina”.*

Dena aldatu behar zelako denak berdintsu jarraitzeko: *Transición democrática, Reforma política, Restauración borbónica* deitu zitzaion aldaketari. Trantsizioko bi mahaikide aipatu ditugu, baina mila aipa daitezke, prozesua konplexua izan zelako eta hamaika mikroprozesu gertatu zirelako aldi berean. Trantsizio demokratikoaren interpretazio desberdinak egin dira; jaso dezagun bat: Trantsizioa Gerra Zibilaren amaiera izan zen, Erreforma Politikoaren Legearekin Suárezen lehenengo gobernuak lortu zuelako 36ko derrotatuek onartzea sistema politikoa. Sinbolikoki, bandera hori-gorria; politikoki, monarkia parlamentarioa; eta sozio-ekonomikoki, kapitalismo egonkor bat, 1977ko Moncloako pak-tuekin ziurtatu zena. Prentsa eta adierazpen askatasuna adostu zen, alde aurreko zentsura kenduta eta epaileen eskuetan utzirik arazo konkretuak. Tortura delitutzat definitu zen, paperean behintzat. Adulterioa (ezkonduen ezkontzaz kanpoko sexu harremanak) eta *amanzebamientoa* (ezkongabeen artekoak), ostera, despenalizatu egin ziren. Egoera ekonomikoa larria zen, inflazioa %40tik gorakoa baitzen 1973ko petrolio krisiaren ondorioz, eta langileriaren kolaborazioa behar zen. Sasoi hartan, frankismoaren azkenaldian langileen alde gogorren jardundako erakundeak, *Comisiones Obrerasesk*, lortu zuen paradoxikoki enpresa-gizonen konfiantza eta babesia. Akordio sinatzaile ofizialak, Adolfo Suárezekin batera: Leopoldo Calvo-Sotelo (UCD), Felipe González (PSOE), Santiago Carrillo (PCE), Enrique Tierno Galván (PSP), Josep Maria Triguera (PSC), Joan Raventós (CSC), Juan Ajuariagerra (PNV) eta Miquel Roca (CIU). Manuel Fraga (AP), berriz, akordio ekonomikoa sinatu zuen, politikoa ez.

Diktadorearen orde, erregea; demokrazia organikoaren orde, demokrazia parlamentarioa; eta, alderdi politikoak eta sindikatuak legalizatu ondoren, Konstituzioa, Langileen Estatutua, eta hein handian katalanek eta euskaldunek autodeterminaziorik ez izateko asmatutako sistema autonomikoa. Euskaldunen kasuan, Espainiarentzat estrategikoa zen, hasteko, Nafarroa Hegoaldeko beste hiru probintzietatik bereiztea estatutu diferentetan. Euskal probintzietan jende gehienak Euskal Herriko mapak eskegitzen zituen etxeko horman eta uste zuen izango zuela aukera gauzak erabakitzeko. Ez zekiten Estatu-arrazoia jendearen erabakitzeko eskumenaren gainetik dagoela demokrazian ere.

Espainiako zineman Destapearen Sasoia zen. Ordura arte emakumeen izterrak, titiak eta gorputz biluziak debekatuta egon zirenez pantailetan, jendea jakin-minez eta irrikaz joaten zen zinetokietara. Egiten ziren pelikulak ere, halakoak egiten ziren, gidoi-aitzakia gutxirekin erakusteko biluztasunak. Emakumeak apur bat libreago zebiltzan, ez zineari esker, baizik pildora erabiltzen hasi zirelako, 1978an legezkatuko zena. Baina, destapeen eta libertateen ondoren, ia berehala, Desenkantorearen Sasoia heldu zen. Jaime Chavarrik 1976an Leopoldo Panero poeta frankista defuntuaren familiaz egindako dokumental bereziaren izenburuak (El Desencanto) eman zion izena garai hari. Izan ere, suposatzen zen Franco hilda gero, hark debekatu eta oztopatutako kreatibitatea kutxa zaharretatik azalduko zela loraldi bat bezala.

Eta gertatu zen, zineman bezala bestelako arteetan ere, literaturan edo kantagintzan, zentsura kendu ondoren ez zela aparteko altxor debekaturik deskubritu eta argitaratu, ez inongo loraldi berri ikusgarririk gertatu. Errejimenaren miseria guztien salaketan oinarritu zen oposizioaren kultura, botere frankista negatiboa energia positibo bihurtzen jakin zuelako jende askok. Francorik gabe, zentsurarik gabe, zerbait falta balute bezala geratu ziren autore anti-frankistak. Eta, gainera, aitzakiarik gabe.

## EUSKALDUNEN ARTEKO BANAKETA BANDERIZOA

Trantsizio edo erreforma urteak ere, euskal probintzietan errebindikazio eta errepresio gogorreko urteak izan ziren. Gertakari konkretu batzuk aipatzearren, 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen greba orokorra zela, Zaramagako elizan bilduta zeuden langileen kontrako erasoan Poliziak bost grebalari hil zituen eta ehun bat zauritu. Apirilaren 5ean Segoviako ihesa izan zen. Muga pasatu orduko galdu ziren iheslariak eta lauk bakarrik lortu zuten bestaldera pasatzea. Karabineroek bat hil zuten, Oriol Solé Sugranyes anarkista katalana. Maiatzaren 9an, Montejurran, karlisten ibilaldi tradizionalan frankistek karlista ezkertiarak eraso eta bi hil zituzten. Durangon bertan ere, San Faustoko jaietan “inkontrolatuek” behin eta berriz eraso zuten jendea. Askatasunen aldeko bileren, langile-greben, amnistiaren aldeko manifestazioen artean, abenduaren 5ean, Errealaren eta Athleticaren arteko partiduan, jokalariai ausartu ziren ikurriña, Kortabarriaren eta Iribarren eskuetan, zelaira ateratzera. *“Antes de permitir exhibir esa bandera tendrán que pasar por encima de mi cadáver”*, esan arren Manuel Fraga Barne Ministroak, ikurriña legalizatu behar izan zuten handik gutxira.

Espanian, 1976ko abenduan Erreforma Politikoaren Legea planteatu zenean, oposizio alderdi handi guztiek hausturaren ideia abandonatu eta Erreforma onartu zuten. Euskal Herrian, ostera, demokratizazioaren eskaera erradikalagoa zen eta, baldintzen aurrean, oposizioa bitan banatu zen: erreformaren alde lerratu ziren PSOE, PNV eta PCE-EPK, eta hausturaren ideiarekin geratu ziren ETAm, ETApM, EMK eta LKI. Euskal arazoa delakoa, soluzionatu beharrean, larritu eta betikotu egingo zen. Zetorren sasoi berrirako bi estrategia diferente konkretatu ziren, gertaerak bata bestearen gainean pilatzen ziren artean. Trantsizio hura, elkartasun eta kontsentsu sasoi izan beharrean, borroka eta oinaze sasoi bihurtu zen.

1977an ere itzela zen herri-mugimenduaren eta Estatuaren arteko enfrentamendua. Aberri Eguna ere debekatuta egon zen, baina oposizioak hauteskundeetan parte hartu ala ez erabaki behar zuten, eta jarrera desberdinak azaldu ziren. ETApM eta EIA parte hartzearen aldekoak ziren eta EE (Euskadiko Ezkerra) fundatu zuten, Koordinadora Abertzale Sozialista abandonatuta, gainerako alderdiak abstentzioaren aldekoak zirelako. Hala ere, *pm*-ek borroka armatuarekin jarraituko zuten 1981era arte. Hurrengo urtea ere gogorra izan zen Euskal Herrian, ETAREN ekintzak areagotzen zirela eta baita ere errepresioa. 1978ko San Ferminetan, amnistiaren aldeko pankarta bat zela-eta hedatu zen iskanbilan Poliziak German Rodriguez hil zuen, LKiko militantea. Hurrengo egunetan Poliziak berdin eraso zuen Donostian, Joseba Barandiaran hiltzeko. Errenteria erdialdea ere suntsitu zuten, hil beraren 13an, Miranda de Ebrotik heldutako uniformedunek.

Konstituzioari buruzko erreferendumean, 1978ko abenduaren 6an, bai PNVk bai ETA biek abstentzioaren alde egin zuten, eta testu konstituzionalaren onarpena Euskal Herrian oso ahula izatea lortu zuten. Baina hurrengo urtean Autonomia Estatutuarena izan zen, eta ja euskaldunak banatuago agertu ziren. Baietzaren alde egon ziren PNV, PSOE, Euskadiko Ezkerra, PCE eta UCD. Ezetzaren alde: PP. Eta abstentzioaren alde: HB, EMK, LKI. Nafarroan, erreferendumik ere ez zen izango.

1975etik Mikel Laboak, Joxean Artzerekin eta Zumetaren txoriekin, *Ikimilikiliklik* izeneko espektakulu audiobisuala ematen zuen, eta 1977an Lluís LLachekin *Komunikazioa-Inkomunikazioa* taularatzen hasi zen, beste pausu berritzaile bat. Esan denez, mugimendu zabal baten soinu-banda izan ziren Laboa, Lete, Lurdes Iriondo, Lertxundi, Imanol erbestetik, Pantxoa eta Peio, Etxamendi eta Larralde, *Oskorri*, Gorka Knörr, Gontzal Mendibil, *Errobi*, Urko, Antxon Valverde eta beste asko. Orduko kontzertuak jendetsuak, politizatuak eta arriskutsuak izaten ziren: askotan debekatzen zituzten, eta askotan ere polizia makilaka eta tiroka sartzen zen euretara eta barreiatzen zituen edozein aitzakia erabilita. Batzuk handiak eta gogoangarriak egin ziren. Esate baterako, 1976ko martxoaren 27an Herri Irratiak Donostiako Anoeta belodromoan antolatutako *24 Ordu Euskaraz* jaialdia. Edo 1978ko ekainaren 17an San Mames futbol zelaian izan zen *Bai Euskarari* kanpainaren amaierako jaialdia.

Kulturaren alor guztiak mugitzen ziren ezinbesteko aldaketaren bila. Xabier Amurizak, Zamorako espetxetik atera eta aditza irakatsi zien Durangon alfabetatzeko irakasleei, Areitiok bertso-eskola sortzen zuen artean. Baina bertsolaritza berritzen ari zen ja Amuriza doinu eta hizkera aldetik, norabide modernoak emanez jarduera arkaiko horri. *Euskadi Sioux* aldizkari elebidunak umore apur bat ekarri zuen egoerara, Montxo Goikoetxea, Bizente Ameztói, Jose Mari Agirre, Rafa Castellano, Antton Olariaga, Juan Carlos Egillor, Maia Agiriano, Tomas Goikoetxea eta halakoen eskutik. Antton Ezeiza, Xabier Agirresarobe, Jose Julian Bakedano, Koldo Izagirre eta enparauek *Ikuska* saileko dokumentalak errodutzen ari ziren. 1979an, berriz, Juanba Berasategik *Fernando Amezetarra* marrazki bizidunetako euskarazko lehenengo pelikula egingo zuen. Literaturan, Gabriel Arestik Jon Miranderen *Haur besoetakoa* argitaratu zuen 1970ean, nahiz 1959an idatzitako lana izan (Jon Mirandek bere burua hil zuen 1972ko inozenteen egunean), Ramon Saizarbitoriak *Ehun metro* atera zuen 1975ean, debekuak urtebete atzeratu zuen arren, Koldo Izagirrek *Zergatik bai* 1976an, Bernardo Atxagak *Etiopia* argitaratu zuen 1978an.

Musika ere aldatzen ari zen hamarkadaren bukaeran. Ordura arte militantziagatik kantatzen bazen, orain kalitatea hasi zen eskatzen. Bakarkako kantariak lekua utziko zien taldeei, eta kantautoreek ere taldea osatu beharko zuten: *Haizea* sortu zen 1977an, Txomin Artola eta Amaia Zubiriarekin, *Izukaitz* hurrengo urtean, *Itoiz* ere bai. Imanol berri bat heldu zen 1979an *Sentimenduen hauspoz* diskoarekin.

Mikel Laboak 1979an zuzenean abesteari utzi zion, bere zeregina birpentsatzeko, aldaketen aurrean deseroso sentitzen zelako beharbada, gizarte zaharra akabatuta izaki eta gizarte berria jaio gabe oraindik. Bost urtez egongo zen kontzerturik eman gabe. Kantagintza utzia zuen ordu-rako Xabier Letek ere eta, arrazoi batengatik edo bestearengatik, Pantxoa eta Peiok eta Txomin Artolak ere.



Euskal kultura  
instituzionalizazioaren  
eta erresistentziaren  
artean

## TRANTSIZIOA

Trantsizioa, batzuen ustez, Francisco Francoren heriotzarekin hasi zen eta PSOEk hauteskundeak irabazi zituenean amaitu, 1982ko urrian. Beste batzuen arabera, Carrero Blancoren heriotzarekin hasi zen eta OTANi buruzko erreferendumean amaitu zen, 1986ko martxoan. Nazioartean homologatuta, Europako Komunitate Ekonomikora ere sartu zen orduan Espainia.

Trantsizioa zer izan zen definitzeko kongresu bat konbokatu zuen 1984. urtean José Ortega y Gasset Fundazioak; *Asociación para la defensa de la Transición* delako elkarteak fundatu zuten 2007an Andrés Cassinellok eta halakoek, eta Trantsizioa umeentzako ipuin bat bezala kontatzeko horrelako beste mila ahalegin egin dira. Zergatik Trantsizioaren kontzeptua edertu behar hori? Trantsizioak jende askoren lotsariak tapatzen ditu beharbada, horregatik justifikatu beharraren gortina hori. Bizi guztiko faszistak bizi guztiko demokrata bihurtu ziren Trantsizioaren estalkiarekin. Eman dezagun Rodolfo Martín Villa, Diktaturako alkandora urdina, Trantsizioko Barne ministro kargutik "2 eta 1 irabazi dugu" deklaratu zuena Iruñean izandako tiroketa batean ETAko bi kide eta polizia bat hil zirenean. 2013ko azaroaren 26an, Real Academia de Ciencias Morales y Políticas delakora sartzeko diskurtso bat egin zuen: *Claves de la Transición, el cambio de la sociedad, la reforma en la política y la reconciliación entre los españoles*. Bestalde, Trantsizioa negozio handi bat izan zen oposizioiko askorentzat, Carlos Solchagarentzat adibidez: hasieran UGTren laguntzaile gizajo bat baino ez zena, milioidun izatera pasatu zen PSOEn karrera eginez Industria eta Ekonomia ministro bezala. "España es el país donde más dinero se puede ganar a corto plazo en Europa y en casi todo el mundo", deklaratu zuen 1988an, inondik ere ezin dena gezurtzat hartu bere kasu partikularrean. Gaur egun, Korporazio handien aholkulari eta Reina Sofia Museoan ere arduradunetakoa denez, ez legoke gaizki, diru-akumulazioa artelantzat errekonozitzen den heinean, bere burua esposizio berezian azaltzea museo ospetsu horretan.

Estatu oligarkiko bat antolatu zen, Ejertzitoak zaindua, Estatu Batuek babestua, hiru botereen arteko banaketarik gabe. Oro har, Trantsizioa irtenbide eta negozio izan zen Estatuaren egitura zahar eta berrientzat, aberats zahar eta berrientzat, eta Erregearen Etxearentzat, eta bankuentzat eta, baita ere, Elizarentzat, Estatua kriptokonfesionala baita oraindik. Kotsentsua deitu zitzaion, iraganeko tiraniaren egiturak klandestinitatetik heldutako anbizioekin elkarlanean jartzeari. Pelotazoaren kultura ekonomikoarekin, ustelkeria eman behar zuen sistema horrek, eman zuen bezala, ondo zabala eta iraunkorra.

Trantsizioarekin libertate batzuk lortu ziren jendearentzat, libertate asko eta handiak askatasunik gabe bizitzera ohituentzat, baina ez demokrazia benetakorik, alde zurretik ebaki zitzaizkiolako hegala errepublikanismo demokratikoari eta jendeak gauza garrantzitsuak erabakitzeke eskubideari.

## ELEFANTE ZURIA

1981eko otsailaren 23an, Antonio Tejerok eta beste guardia zibil batzuek Diputatuen Kongresuaren asaltua antzeztu zutenean, Elefante Zuriaren zain geratu ziren. Elefante Zuria ez zen agertu eta, ipuineko protagonista noragabeak, eskurik gabeko marionetak bezala utzi zituen. Bunker militar eta frankistaren demokratizazioaren aurkako estatu-kolpea omen zen. Heroikotzat aurkeztu zen Juan Carlos erregearen jarrera, telebistan estatu-kolpearen kontra azaldu izana. Demokraziaren garaipena balitz bezala kontatu zen hura, eta, koroa diktadorearen eskutik jaso ondoren, Juan Carlosen erredentzio pertsonal eta legitimazio demokratikotzat.

Egia, gerora jakin izan denez, oso desberdina da. Adolfo Suárez ahulduta zegoen "Iemazain" moduan eta urtarrilean dimititu zuen, Madrilen aldarrikapen kolpistak ugaltzen ziren artean, Erregeak Gernikara egin zuen bisitan Herri Batasuneko diputatuen protesta desatsegina jasan behar izan zuen, José María Ryan Lemoizko Zentraleko ingeniari bahitua hilda agertu zen, beste enpresari bat, Luis Suñer, bahituta zegoen, Joxe Arregi bederatzitik egunez torturatuta hil zen Carabanchelen. Otsaileko giro bortitz horretan, Leopoldo Calvo-Sotelok hartu behar zuen Gobernu, baina 20an ez zuen gehiengorik irabazi eta 23an beste botazio bat egin behar zen.

Kolpea baino bi egun lehenago, Emilio Romero kazetariak ABCn "Iema-kolpe bat" proposatzen zuen, Adolfo Suarez kritikatu eta Alfonso Armada jenerala proposatu Gobernu Presidenterako. Ezkutuan, estatu-kolpea modu bikoitzean antolatu eta zabaldurik zen: batetik, kolpe gogorra, Antonio Tejerok, Jaime Milans del Boche eta bunker frankistak bultzatua, eta, bestetik, kolpe biguna, Alfonso Armadak Erregearekin eta klase politiko nagusiarekin bultzatua. Antonio Tejero aurreratu egin zen, Kongresua asaltatuta, eta Elefante Zuriaren zain geratu zen, Alfonso Armada Erregearen gizonaren zain, seguru asko. Deskoordinazioa gora-behera, kolpista bigunak irabazte atera ziren, nagusi, eta demokraziak kolpismoa derrotatu balu bezala gainera. Erregea, Enrique Mugica Herzog eta enparauak, demokrata handitzat hartuak.



Baina Arias Navarrok 1975ean, Franco hil aurretik, markatu zituen mugak berresten ziren berriz praktikan: egitura nagusietatik kanpo geratuko zen edozein obrerismo, Espainiaren batasuna zalantzan ipintzea eta Estatuaren forma monarkikoa eztabaitzea. Ordura arte diktaduraren larderiak egindakoa, hortik aurrera demokraziaren izenean egingo zen: bazter uztea errebindikazio igualitarioak, herrien autodeterminazio eskubideak eta asmo errepublikanoak. 23F hartan konfiguratu zen kasta dominante bat Espainiako politikan, UCD, PP eta PSOE alderdien artekoa. Ideologia dominante moduan ezarriko zen laster, baina PSOEek anti-euskalduntasun frogak pasatu behar izan zituen aurretik, hala nola Nafarroako erakundea PSEtik apartatzea edota autodeterminazio eskubideaz arnegatzea. Kasta politiko harentzat ETaren kontrako borrokan edozerk balio zuen, eta orobat nazionalismo periferikoen kontra, eta kapitalismoaren defentsan, noski. Aliatu ustekabeak ere izango zituzten harrezkero, ordura arte borroka armatua egindako ETApn erakundeak negoziazio eta damuketa arteko zerbait antzestu eta Eeko buruzagitzaren parte bat elite politiko-mediatikoan integratu zen, konbertsoen erradikaltasunez jarduteko harrezkero.

Joxe Arregiren kasua paradigmaticoa izan zen. Tortura delitua zen, eta hortxe zegoen gorpua marka guztiekin. 73 poliziak parte hartu zuten, ofizialki, torturetan. Bost baino ez zituzten arrestatu. Estatu-kolpearen ondoren libre geratu ziren, eta PSOEko Gobernuak errehabilitatu egingo zituen, sarituak izateko. Baina aferaren muina ez zen ETaren kontrako borroka, funtsean euskaldunen eta katalanen borondatea zen arazo larria. Zentzu horretan, hurrengo urtean LOAPA (*Ley Orgánica de Armonización del Proceso Autonómico*) ezarri zen UCD eta PSOEren arteko paktu bati esker. Legea ez zela izan kolpearen ondorioa sostengatu dute bai Calvo-Sotelok eta bai Felipe Gonzalezek, eta egia da beharbada, bai batzuen eta bai besteen xedean baitzegoen hori guztia kolpea baino lehenagotik ere. CIUk eta PNVk gogor protestatu zuten eta Tribunal Konstituzionalak ametitu behar izan zuen Legearen inkonstituzionalitatea, baina ukitu gutxi batzuekin hortxe geratu zen inposizioa.

Iragana iraganda ez zegoenez, eta zenbait konturi ezikusi egitea komeni zenez, gauzak ezkutatzen eta faltsifikatzen hasi ziren. Instituzio eta enpresa dominanteek, iraultzaile-ohi konbertso askoren kolaborazioarekin, frankismoaren kontra kritikoa izandako guztia obsoletotzat salatu zuten, eta heterodoxiak kimatzeko estrategia luzeari ekin zioten. Intelektualen artean, erdi oharkabeen, OTANen sartze intelektual bezalako bat bizi izan zen. Homologatu beharra zegoen filosofo berri frantsesen anti-marxismoarekin eta mendebaldeko kulturarekin. Ideologia dominante bat joan zen konformatzen: botere nagusiek legitimatzen zuten kasta intelektuala eta honek legitimatuko zituen botere nagusiak, pentsamendu global hegemonikoarekin sintonian. Hurrengo hamarkadan, pentsamendu bakarra deituko zitzaion horri.

## EUSKAL KULTURAREN INSTITUZIONALIZAZIOA ETA NAPARTHEID

Gernikako Estatuaren ondorioz, laster fundatu ziren Ertzaintza eta Euskal Irrati Telebista. 1982an hasi zen polizia autonomikoa lanean, baina ez Guardia Zibilaren edo Polizia Armatuaren ordezkotik,

askok espero zuten moduan, baizik eta haien osagarri. Buruak ere Ejertzito espainolekoak izan behar zituzten, baina kolore aldaketa bat zen behintzat espainiar errepresio indar gogaikarriekiko. ETB ere 1982an hasi zen lanean, lurretako egoitzatik, euskarazko lehenengo katearekin. Hezkuntza publikoan ere aldaketa handiak nabaritu ziren, 1983an A, B eta D ereduak proposatu zirenetik. Gurasoen eskaera zabalari jaramon eginez, astiro, baina ofizialki, euskara denon ondasun moduan errekuperatzeko ahalegin bati ekin zitzaion Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban.

Nafarroan beste bide batzuetatik zihoazen gauzak eta, euskara goraiatu arren, euskararen hedapena blokeatzeko ahaleginak nagusitu ziren ofizialki. *Ley del Vascuence* delakoak, euskara ikasteko hiru erritmo proposatu beharrean, euskararen irakaskuntza blokeatzeko hiru territorio markatuko zituen laster: *Zona Vascofona*, *Zona Mixta*, *Zona No Vascófona*. Nafarroako euskal hiztunen eskubideen urraketa sistematikoaren jarraipena zen.

*“Legeak euskaldunak diskriminatzen ditu apartheidak beltzekin egiten duen bezala. Nafarroako apartheid, Nafartheid”*, idatzi zuten Iruñean *Nafartheid* fanzineko komikigile gazteek. Baina Hegoafrikakoak baino gehiago iraungo zuen Nafarroakoak. Eta botere autonomikoen jarrera hain anti-euskaldunak izan zirelako nagusi, 60ko hamarkadatik zetorren euskalgintza mugimenduak bere horretan jarraitu beharko zuen luzaroan.

Hegoaldeko beste hiru probintzietan euskal kulturaren instituzionalizazioa ez zen erresistentzia mugimenduarekin kontraesanik gabe gertatu: batetik, Euskal Gobernuak despoltizazioa eta normalitate instituzionala inposatu nahi zuen, eta bestetik, herri-mugimenduek aurreko hamarkadako klabeekin jarraitu zuten. Gobernuak PNVren kontrol-agenda zuen, erakundeak goitik behera zuzentzeko estrategiarekin. Baina erresistentzia indartsua zen, anitza eta nahiko kontrolaezina: komunikabide alternatiboak, gaztetxeak, errekonbertsio industrialaren kontrakoa, presoen aldekoa, ekologismoa, internazionalismoa, rock erradikala, feminismoa, intsumisioa, euskararen aldeko mugimendua... Borroka armatua ere gogortuz joan zen errepresioarekin batera. ETAk, pm-ak erretiratu zirenetik, estrategia politiko-militarra asumitu zuen, eta herri-mugimendu hori kontrolatu nahi izan zuen alde edo moldez, mesede baino kalte gehiago eginez hainbat ekimeni. Denborarekin, ofizialtasun autonomikoaren eta ezker abertzalearen arteko banaketa hori gatazka endemikoa bihurtu zen euskal politikan bezala euskal kulturaren ere, energiaren parte handi bat bikoiztasun banderizo horretan eta elkarrekiko boikotean xahutzen zela.

Adibide moduan ipini daiteke Alfabetatze eta Euskalduntze Mugimenduaren bilakaera. Rikardo Arregik-eta bultzatutako gau-eskola lokalak elkartu eta, 1976an, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea sortu zen. 1977ko Durango Azokan aurkeztu zen AEK, Euskal Herri osoko gau-eskola eta euskaltegien erakundea. Ez zituen denak biltzen, aparte baitzeuden Labayru, Ilazki eta beste batzuk, baina ikasle kopuru handiak biltzen zituen. AEK ez zen instituzio ofizialetara egokitu, eta, Euskaltzainditik ere aparte geratu zenez, erakunde autonomo moduan geratu zen, printzipiotzat hartuz autonomia hori, publikotasuna, lurraldetasuna, herri dinamika eta gestio demokratikoa.

AEK herri-mugimendua zen eta mobilizazio jendetsuak antolatzen zituen (ezagunenak, *Korrika* eta *Aekanpada*). Eusko Jauriaritzak, ostera, 1981ean HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea) sortu zuen, baliabide legal eta ekonomiko handiekin eta AEKri lehia egiteko asmoarekin, AEKri sostengu ekonomikoa murrizten zion artean. Bi erakundeen helburuak berberak ziren arren, euskaradunak alfabetatzea eta euskaraz ez zekitenei hizkuntza irakastea, AEK eta HABE bata bestearen kontra banaturik ibiliko ziren hurrengo hamarkada osoan, azpiegitura, ikasmaterial eta halako kostuak bikoiztuz eta liskar etengabe, harik eta 1995ean gauzak apur bat negoziatu eta harremana baretu zen arte.

Administrazioaren eta herri-mugimenduen arteko desenkontru eta kereila alor askotara zabaldu zen. Eta, momentu batzuetan, Estatuak estrategia orokorrako baterako profitatuko zuen, euskal herri-mugimenduak kriminalizatzeko: AEK auziperatzeko edota *Egunkaria* zarratzeko, adibidez.

## EZINEZKO NEGOZIAZIOA

Trantsizioaren sasoiko langile-errebendikazioetan, ikasleen protestetan, Lemoizko zentral nuklearraren kontrako mobilizazioetan, OTANen sartzearen kontrako kanpainan, ezker abertzaleak protagonismoa izan zuen. Estatu espainolak Euskal Herria kontrolatzeko errepresioaz beste biderik ez zuen aurkitzen, eta PSOE Gobernura iritsi zenean ere, 1982an, gauzek berdintsu jarraitu zuten. Orduan presentatu zen Plan ZEN (*Zona Especial Norte*), programa errepresibo berezia, euskaldunak egoera ia intsurrekzionalean zeudela suposatzen zuena. ETA erraz hazi eta gogortu zen testuinguru horretan. Estatuaren aparatuek, ZEN plana nahikoa ez eta GAL delakoa antolatu behar izan zuten PSOErekin, 23 pertsona hiltzeko 1983tik 1997ra bitartean. Josean Lasa eta Josi Zabala erre-fuxiatuen bahiketa eta hilketak ere testuinguru horretan gertatu zen. "Gerra zikina" deitu zitzaion hari, Guardia Zibilak eta Poliziak normalitatean egiten zuten guztia jarduera garbia balitz bezala. Tortura, esate baterako, ohikoa zen.

Bortxak ezin zuen Estatu legitimatu Euskal Herrian. ETAk ere indar erakusketak legitimatzen zuela pentsatuko zuen beharbada, jomugak zabaltzen hasi zenean eta ondorioen arduraz ahazten. ETAREN gainbeheraren hasiera datatzeko ekintza konkretuak aipa daitezke: 1986an Dolores Gonzalez Yoyesen kontrako ekintza eta 1987an Hipercor merkatal zentrokoa, 21 hildakorekin. Lehenago ere izan ziren erratuak eta gaizki aterako ekintzak, baina jende gero eta gehiago hasi zen bortizkeriaren kateaz gogaitzen, nahi zenaren eta lortzen zenaren arteko desoreka kontuan hartuta. Demokraziaren eskasak, autodeterminazioaren ukazioak eta errepresioak justifikatzen zuen erresistentzia, baina ez edozer egitea. 1929an, Entziklopedia Britanikoarentzat gerrilla kontzeptuaz idatzi zuen artikuluan, T.E. Lawrencek seinatu zuen gerrillak nahikoa duela populazioaren %2aren sostengua, baina populazioaren gehiengoaren ulermen pasiboa behar duela, lagundu ez arren salatuko ez duen gehiengoarena. Eta 80ko hamarkadan amaieran, ETA bigarren ulermen pasibo hori hasi zen nabarmenki galtzen, aldekoen atxikimendua mantendu arren.

1987ko azaroan Lehenengo Itun Anti-terrorista sinatu zen Espainian, PNVk eta EEk ere parte hartzen zutela. Ajuria Eneako Paktua ere berehala sinatu zen, eta negoziatorako eta normalizatorako paktua zen, itxuran, baina Estatuak bere programa kontra-terroristarako besterik ez zuen erabiliko hura dena.

Aljerreko negoziazioak aukera on bat izan ziren soluzio militarrik ez zuen arazoa konpontzeko. Trantsizioa osa zitekeen Euskal Herrian hamar urte geroago, negoziazio eta akordio irekiago baten bidez, baina ezinezkoa izan zen. Euskal politika *power politics* gogorregian zegoen endredaturik halako negoziazio batek eskatzen zuen eskuzabaltasunari eta ustekabeari zirrikiturik uzteko.

Negoizazioaren porrotak bortizkeria areagotzea besterik ezin zuen probokatu. ETak kanpaina bortitzari ekin zion eta Estatuak ere bai, fronte guztietan. Testuinguru horretan antolatzen, Imanolen kontrako pintada baten aitzakiarekin, *Concierto contra el miedo* delakoa, eta hil zuten 1989ko azaroaren 20an, Francoren heriotzaren urteurrenean, Madrilera diputatu kargua hartzera joandako Josu Muguruza.

## ROCK ERRADIKALA ETA POSMODERNISMOA

Audio-kaseten sasoia izan zen 80ko hamarkada. Aurrez grabaturiko kasetak 1965ean hasi zen erabiltzen, baina hasierako entzungailuak ez ziren egokiak musika entzuteko eta kasetek ere diseinu-akats asko zituzten. 1971. urtetik aurrera, akatsak konpondu eta zarata murriztuz, fidelitate oneko soinua lortu zen. 80ko hamarkadan walkmana hedatu zenetik batez ere, musikaren medio arrunta bilakatu zen: ondo entzuten zen, erraz grabatzen edo kopiatzen zen eta asko irauten zuen. Sasoiko musikazalea hala irudika daiteke: gaztea walkamanarekin kalean.

Pop, rock, reggae, punk, heavy metal eta abar, baina Estatu Batuetako komunikabideetan popa nagusitu zen, Michael Jackson eta Madonnaren eskutik. Gitarra elektrikoak, teklatuak, sintetizadore eta soinu birtualekin, ukitu alternatibo eta futurista hartu zuen musikak, konplexurik gabeko gazte-giro koloretsu eta gehiegizkoan. Diskoen salmentak itzelak ziren eta musika zeharo komertzializatu zen: *Genesis*, *Queen* edo David Bowie ere merkatura egokitu ziren. Bideokasetak eta bideojokoak zabaltzearekin batera, 1981eko udan bideo musikalak baizik emango ez zituen lehenengo telebista kanala fundatu zen Estatu Batuetan: MTV. *The Buggles* taldearen *Video Killed The Radio Star* izan zen lehenengoetako bideoklipa. Michael Jacksonek *Thriller* egingo zuen eta gero *Scream*.

Euskal musikan beste estilo batzuk nagusitu ziren. Aurreko hamarkadako kantautore eta talde batzuek lanean jarraitu zuten: Benito Lertxundi, *Oskorri*, *Errobi*, baina orain protesta politikoari lehentasuna eman gabe, abesti bakoitza artelan bat bihurtu nahian. Berriak ere agertu ziren proposamen berritzaileekin: 1980an, esaterako, Ruper Ordorikaren *Hautsi da anphora* eta *Itoiz* taldearen *Ezekiel* agertu ziren, 1984an Imanolek *Erromantzeak* publikatu zituen. Baina hamarkada horretan

nagusitu zena rock erradikala deituko zena izan zen: *Barricada, Jotakie, RIP, Zarama, Kortatu, M-ak, Hertzainak, La Polla Records, Cicatriz...*

Punka, bereziki, gustu onaren kontrako errebeldia zen, kontrakultura orokorraren bidetik: jendea gustu onez jarduten ahalegintzen bazen, punka itsusi agertuko zen apropos, eder, garesti eta berri barik motz, merke eta erabili luzituz. Popak edo reggaeak zuten gauzak hobetzeko ilusio abstraktuaren ordean, punkak etorkizunik eza aldarrikatuko zuen, jendea seduzitzeko baino gehiago jendea ikaratzeko asmoz. *Sex Pistols* taldearen abestiak, Erreginaren kontrako esaldiak zirela-eta, debekatu egin zituzten, baina errebeldia hori ere laster asimilatuko zuen sistemak, sinboloak hartuz eta haien esanahiak itxuraldatuz. Baina hori beste historia bat da.

Euskal Rock Erradikalak, kaleko protesta giroari loturik, sasoi hartan antolatutako gaztetxeetan eta irrati libreetan aurkitu zuen egoitza. Abestietan modu gordinean azaldu zituen momentuko arazo larriak: fabriken itxiera eta langabezia, ZEN plana eta Estatuaren terrorismoa, auzoetako egoera eta sexismoa, kontsumismoa eta heroina. 1970eko hamarkadarekin helduak ziren Euskal Herrira drogak: marihuana, hatxisa edo haluzinogenoak. 1976tik aurrera zabaldu ziren gazteen artean, eta poliziak, heroina bereziki, kontrol tresna moduan erabili zuen eskualde konfliktibo batzuetan. Belaunaldi oso bat jo zuen drogak, borroka armatuak baino hilgarritasun askozaz handiagoarekin. Heroinak eta gero HIESak musika talde osoak hondatu zituen: Gasteizko *Cicatriz*, adibidez, edo Bilbo Ezkerraldeko *Eskorbuto*.

Euskal Rock Erradikala ez zen agertzen telebista, irrati eta kazeta nagusietan; gazteriak entzuten izan arren, sistematikoki ahalegindu ziren baztertzen. Paradoxa moduan ere azter daitezke gertatzen ari zena: protesta eta mobilizazio iraultzaileen soinu-banda izan zen musika hori, baina desmobilizazio sozialaren atzeko zarata ere bai. Protesta politiko erradikal bat zen ezkerren gainbeheraren sasoiaren.

Hamarkada honetako liburuetakoz batzuk aipagarriak dira: 1980koak dira *Ergelen konjura* (John Kennedy Toole), *Arrosaren izena* (Umberto Eco) eta *Geure kronika* (Xose Luis Mendez Ferrin); 1981ekoa da *Munduaren akaberako gerra* (Mario Vargas Llosa, Euclides da Cunha-ren *Os Sertões* paregabea gogoratzeko bederen); 1983koak *Michael K-ren bizitza eta sasoi* (J.M. Coetzee), *Alferrikako ahaleginen museoa* (Cristina Peri Rossi) edota *Anfetamiña* (Xabier Montoia); 1984koak *Izatearen arintasun jasanezina* (Milan Kundera), *Amorantea* (Marguerite Duras), *Ricardo Reisen heriotzaren urtea* (Jose Saramago), eta *Txistu y Tamboliñ* aldizkaria argitaratu zen Durangon; 1985ekoak dira *Amodioa koleraren aroan* (Gabriel García Márquez), *Odol meridianoa* (Cormac McCarthy), *Perfumea* (Patrick Süskind), *Beloved* (Toni Morrison), *Zoo ilogikoa* (Luigi Anselmi), eta Italo Calvino hil zela gogoratu behar da, *Lezioni americane* (edo *Hurrengo milaurterako sei proposamen*) deituko ziren hitzaldiak prestatzen ari zela; 1986koa da *Bufo & Spallanzani* (Rubem Fonseca); 1987koak dira *Banitateen sutea* (Tom Wolfe), *Inperioko albisteak* (Fernando del Paso) eta

*Kausa galduak* (Javier Sadaba); 1988koak *Samarkanda* (Amin Maalouf) eta *Obabakoak* (Bernardo Atxaga); 1989koak *Ilargiko jauregia* (Paul Auster), eta *Gizarte transparentea* (Gianni Vattimo)...

Arteak eklektizismorantz jo zuen, orijinaltasun eta berritasunaren ordeztu, nolabaiteko oroimenez eta ironiaz errekuiperatzen zirela aurrekoren bideak. Jean-François Lyotardek *La Condition postmoderne* saiakeran mega-errelatoen disoluzioa anuntziatu zuen, askatasun indibiduala aldarrikatuz eta, unibertsalaren eta homogeneoaren aldean, lokala eta anitza hobetsiz. Babelizazioa ez zen zertan oker eta kalte handitzat arbuaiatu. Postmodernismoarentzat, Gianni Vattimok argitu bezala, gertaerak ez ziren ja funtsezkoak, baizik interpretazioak, lekukoaren ikuspegiaren araberrakoak. Kant, Hegel edo Marxen filosofian subjektu azkar ziren gizakia edota herria lausotzen hasi ziren arte guztietan, errealitatea eta fikzioa nahasirik, marrazki bizidunak eta hezur-haragizko aktoreak aldi berean agertzen ziren pelikuletan bezala.

## BERLINGO HARRESIAREN ERORKETA

Hamarkadaren hasieran, 1981eko urtarrilean, Ronald Reagan Hollywoodeko aktorea eta politikari errepublikanoa heldu zen Estatu Batuetako presidentziara. Harrokeria nazionala eta Estatu Batuak munduko herri ahalguztidun bihurtzeko promesa izan ziren bere erregaiak. Zortzi urtez egon zen Gobernuan, era onuragarrian oro har bere programa inperialistarentzat.

Euro-baikortasunaren sasoia zabaldu zen, 1983an Estatu Batuetan hasitako susperraldi ekonomiko laster heldu zelako Europara. Espainian ere 1985erako nabaritu zen hazkuntza, Europako Ekonomia Erkidegoan integratzearekin eta UCDe eta gero PSOEek aurrera eramane zuten politika ekonomikoarekin. Langabezia ere modu nabarmenean jaitsi zen.

Europa Mendebaldeko kapitalismoari haizeak alde jotzen zion bitartean, Europa Sortaldeko sozialismoa krisi ekonomikoan eta, batez ere, politikokoan joan zen sartzen. Sozialismo erreala gizarte errealaen sostengua galdua zuen aspaldian, Karl Marxen esaldi arraro hura, "ni ez naiz marxista", benetan hartzeko moduan. *Solidarnosc* (Elkartasuna) sindikatuak eta Lech Walesak hamarkadan zehar egindako greba eta borrokei esker, oposizioko koalizio batek hartu zuen gobernu Polonian. Hungarian, Alemaniako Errepublika Demokratikoan eta Txekoslovakian ere Alderdi Komunistari kendu zitzaion zuzendari papera. Estonia, Letonia eta Lituania mobilizazio handiak egin ziren. 1989an hondoratu ziren Europa Sortaldeko Estatu sozialistak. Estatu Batuetan, proiektu komunistaren porrota kapitalismoaren garaipentzat hartu zen, kapitalismoak irabazi balu bezala behin eta betirako.

Kapitalismoa sistema sozioekonomiko definitiboa zela sinestarazteko, Olin Fundazioak hitzaldi bat antolatu zuen Chicagon: *The End of History?* zuen izenburua, eta Francis Fukuyama zen hizlaria. 1989ko udan argitaratu zen *The National Interest* aldizkarian, Allan Bloom, Irving Kristal eta Samuel Huntingtonen arteko eztabaidarekin batera. Kontraesan handirik gabeko eztabaidaren

ondoren, soka berekoak baitziren denak ere, pare bat urte geroago Fukuyamaren idea zozoak arranditsuki hedatu ziren mundu guztira. Tesi oso orijinalakoa balitz bezala ipini zen Fukuyamaren liburua modan. Saiakera nahiko mediokrea izateaz gainera, ez zen batere orijinala, Hegelen gaineko Kojéveren interpretazioa errebisatzen baitzuen funtsean. Historiak norabidea duela eta progresorantz doala, zientzia eta teknologiek eboluzionatzen duela eta haren amaiera demokrazia liberala eta merkatu ekonomia dela. Hau da, gizadiaren historia guztiaren helburua gaur egun ja hegemonikoa den sistema dela.

Sobietikoak erretiratu ziren arren Afganistanetik eta vietnamdarrak Kanbodiatik, Estatu Batuek Panama bonbardatu beharra zuten. Protesten kontrako errepresioa erabiltzen zen Pekingo Tianamen plazan, baina Caracasen ere gertatzen ziren ia aldi berean sarraski ikaragarriak. John M. Olin fundazioarentzat ari zen lanean Fukuyama, "enpresa pribatuaren aldeko" programa ekonomiko, politiko eta kulturalak asmatzen. Ikuspegi burgesenetik so eginda ere, Fukuyamaren historiaren amaieraren gaineko tesiak ezin ziren izan auto-konplaziente eta irrealistagoak.

1990



1999

Emadazue  
ordenagailua eta  
nik Globalizazioa  
egingo dizuet



## EMADAZUE ORDENADOREA

Ezaguna da Karl Marxen esaldia: “Emadazue haize-errota bat eta Erdi Aroa egingo dizuet”. Esaldia trukaturik esplikatu da sasoi modernoa ere: “Emadazue bapore-makina eta Industriagintza egingo dizuet”. XX. mendearen amaieran esan zitekeen: “Emadazue ordenagailua eta Globalizazioa egingo dizuet”.

Ordenadorea tresna eraginkor bat izan da, pertsonen bizimodua aldatu eta gizartearen ibilbidea nabarmenki baldintzatu duena. Haize-errota eta bapore-makina gizakiaren giharraren ordezkioak izan ziren, haren indarra biderkatzen zuten. Haize-errotak feudalismoa eragin zuen, jauntxoak sortu zituen, armadak. Bapore-makinak kapitalismoa sortu zuen, eta kolonialismoa, langile klasea eta sozialismoa bera ere bai beharbada.

Ordenagailuak ez du giharra ordezkatzeko bakarrik, burmuina ere bai, eta iradokitzen dituen aldaketak ikaragarriak eta ustekabekoak dira. Ustekabekoak, burmuinak milaka milioi zelula eta konexio dituelako, hein handian ezezagunak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek oraindik imajinatzen ere zaila egiten den aro eta mundu batean sartu gaituzte. Trena bezala industrializazioarako izango da Internet aro berrirako. Zenbakirik erantsi gabe konturatuko da irakurlea mendearen azken hamarkadan Internet erabiltzaileak zenbat biderkatu ziren.

Emadazue ordenagailua eta Globalizazioa egingo dizuet, beraz. Globalizazioa, modazko kontzeptua edo slogana, hiztegiko berbarik lausoena eta politikoki eraginkorrena izan zen hamarkada hartan eta, agian, hurrengoetan ere. Ekonomiaren alorrean hasi zen erabiltzen, handik gero hizkera militarra, politikora eta, azkenik, kulturalera pasatzeko.

Alain Tourainek abisatua zuen aspaldian globalizazioa inperialismoa besterik ez dela, azken hitz honek kargatzen dituen konnotazio negatiboz arinduta. Hitzak zaintzen zituen soziologoa zen eta, dudarik gabe, ez zegoen ados globalizazioa erabiltzen zutenek inplizituki adierazten zutenarekin, alegia, inperialismoaren sasoia amaitu dela eta ja globalizazio sasoian gaudela. Aspalditik ari ziren kontzeptua zaharkituztat abandonatu nahian inperialismoaren idazkariak. Zbigniew Brzezinskik, esate baterako, *Between two Ages: America's Role in the Technetronic Era* idatzi zuen 1970an. Inperioa nola iraunarazi ari zen pentsatzen, bizirauteko itxuraldatu behar diren animaliek bezala. Hiri globalaren ideiarekin, nazioarteko harremanen eskema akritiko bat ari zen nagusitzen kapital finantzarien eskutik, planeta osoaren okupazioa zuritzeko.

## ZIBILIZAZIOEN ARTEKO TALKA

1983. urtearen ondoko hazkunde ekonomiko kapitalistaren desazelerazioa nabarmena zen ja 1992an. Hagaitik, Maastrichteko Tratatuan euroa sortzeko adostu ziren baldintzak ez ziren izango betetzeko errazak. Baina baikortasuna mantendu behar zen. Batasun Sobietikoak kudeaturiko sozialismo errealak porrot egin zuenean XX. mendea amaitu orduko, ematen zuen ja kapitalismoak ez zuela oztoporik izango mundu osora zabaltzeko. Baina alternatiba soziopolitikoaren frakasoak ez zuen esan nahi merkatu-liberalismoak hazkunde ekonomiko iraunkorra eta gizartearen onura orokorra ekarri behar zuenik, hala sostengatzen zuen arren pentsamendu hegemonikoak.

Globalizazioarekin, aberatsek gehiago irabazten zuten eta pobreak lotuago zeuden oligarkia supra-nazionalaren menpean. Proiektu kapitalista utopia negatibotzat har zitekeen puntu askotan. XX. mendearen amaieran sistema komunista erori zen, baina sistema kapitalista ere krisi larrian zegoen, gizabidezketasuna erakusteko orduan behintzat. Sare oligarkiko finantzari eta espekulatibo bat izateaz gain ekonomian eta politikan nagusi, bortizkeriari dagokionez ere ezin zen esan Gerra Hotzaren amaierak bake handirik ekarri zuenik. Globalizazioak morrontza ekonomiko larriak eta gatazka amaiezinak iragartzen zituen.

Francis Fukuyamaren profezia faltsua zela urte gutxitan frogatu zen, gatazkak ugaltzen hasi ahala. Historia ez zen berehala amaituko. Eskema inperialista iraunkorrago bat behar zenez, Samuel Huntingtonena aukeratu zen. Vietnamgo Gerrako teorikoa izana, Harvard Unibertsitateko Ikasketa Estrategikoen John M. Olin institutukoa hau ere, artikulu bat argitaratu zuen 1993an: *The Clash of Civilizations?* Historia ez zela amaitu zioen, baina munduko gatazkak ez zirela ja ideologikoak edo ekonomikoak izango, baizik eta kulturalak, zibilizazioen artekoak, zibilizazioa erlijioari dagokion zentzuan ulertuta. Huntingtonek argi zeukan zein izango zen Mendebaldearen hurrengo arerio nagusia: "alianza islamiko-konfuzianoa". Alde batetik, islamistak, Sortalde Hurbila gatazka-lekua zen ja petrolio produkzioagatik, eta, bestetik, Txina, zeina epe luzeko areriotzat

imajinatzea ez zen ilogikoa munduaz jabetu nahi duenarentzat. Huntingtonen teorien helburua Estatu Batuen munduko jendarme papera legitimatzea zen, Mendebaldeko zibilizazioa zaintzeko.

Fukuyamarena bezala, Huntingtonen eskema ere nahiko desegokia zela frogatu zen laster. Huntingtonenak kutsu arrazista nabarmenegia zuen, gainera. Paradigma askozaz sinple eta erabilgarriago bat nagusitu zen laster, terrorismoarena. Terrorismoaren kontrako borroka gisa berdefinituko ziren laster borroka guztiak. Hau bete-betean zetorren bat Estatu Batuek munduan aldez aurretik asumitua zuten funtzio polizialarekin.

Terrorismoaren ideiarekin erabilera demagogikoa Joseba Zulaikak eta William A. Douglasssek kritikatu dute ikuspegi antropologikotik, *Terror and Taboo* deitzen den saiakeran, ingelesez bakarrik argitaratu dena oraindik. Peter Ustinov aktoreak ez zituen 292 orrialde behar izan kontzeptua argipean ipintzeko, nahikoa izan zuen esaldi honekin:

“Aberatsen kontrako pobreen gerra da terrorismoa. Pobreen kontrako aberatsen terrorismoa da gerra.”

## PENTSAMENTSU BAKARRAREN INPOSIZIOA

Telebista, belaunaldi berrien seinzaina eta mundu guztiko errealitatearen informante berehalakoa izateaz gainera, aholkulari politikoa ere bihurtua zen, eta etxe barruko laguntzaile sentimentala, batez ere kateak ugaltzarekin programa norberak aukeratzen zuela ematen zuenetik. Guy Deborden espektakuluaren gizartea hor zegoen ja eta, gehiengoentzat, medioek eskaintzen zuten errepresentazioa errealitatea bera baino sinesgarriagoa zen.

Ordenagailuak, telebistak eta telekomunikazio teknologiek, *Zbigniew Brzezinski* teknotronika deitzen zuenak, kultura eta jendearen arteko harreman berriak ekarri zituen. Pentsari laugarren boterea deitu zitzaion luzaroan, baina ja zinikoki baizik ezin zen halakorik esan, prentsa independentea ia desagertu zelako eta botere industrial eta finantzario nagusien tresna bihurturik zeudelako komunikabide gehienak. Jende horrek bere ideologia ezarri zuen: gizarteak botererik eta pentsamendurik gabe geratzen ari ziren heinean, gizarterik gabeko botere eta pentsamenduak nagusitu ziren munduan.

Nagusitu zen pentsamendu bakarraren arabera, ekonomia inportanteagoa da politika baino eta kapitalismoa egokia eta derrigorrezkoa, gizartearen orden naturala delako. Demokrazia ez da orden “naturala”, baizik eta jendea parte-hartzaile sentiarazteko egiten den esfortzu kultural handia. Arrazoa eta zientzia ere ez dira oso fidagarriak. Teknologia, oster, bada sinesgarria, merkatuarekin batera. Errealitatea, azkenean, desenkontu hutsa da. Utopiak ez du zentzurik eta progresorekin onurak ezin zaizkie denei heldu, epe laburrean behintzat. Modernitatearen amets igoerak miresgarriak ziren, baina bete ezinak dira eta, azken batean, nahiko injenuoak.

Gauzak izan daitezkeen ondoen daudenez gero, zentzurik plangossianoenean, aldatzeko edozein ahalegin irrazionala eta totalitarioa da.

Pentsamendu nagusi horrek kontraesan asko zituen: ingurugiroaren defentsa azpimarratzen da, baina kontsumismoa murriztu gabe. Individualismoa eta norbanakoaren berezitasuna lantzen omen da, baina modaren arabera. Sistema politikoarekiko konfiantza galtzen da, baina sistema aldatzeko ideia gaitzesten da aldi berean. Nazioarteko politikan ere, injustiziekiko axolagabezia orokorraren testuinguruan, giza eskubideak hartzen dira edozein herrialde erasotzeko arrazoi-bidetzat, giza eskubideekiko errespetu gutxienekorik gabe egingo den arren gero okupazioa.

## GUGGENHEIM MUSEOA ETA ELEBERRIA

1992. urtean erabaki zen zein lurretan eraikiko zuen Frank Gehry arkitektoak Guggenheim-Bilbao Museoa. Proiektua kulturaltzat aurkeztu zen arren, urbanistikoa zen, ziutate industrialaren erruina ezabatuen gainean eraikitako hiri-zati postmoderno. Bilbok New York izan nahi zuen, bazter-azorik gabe, burges txikiak handi izan nahi duen bezala.

Ontziolak eta fabrika zaharrak desmontatu, langileak langabetu eta poliziaren errepresioaren arrastoak disimulatu ondoren, ondo zetorren museo postmoderno miresgarri bat Bizkaiko aberatsen dirua zer-nolako auzo-neke eta lohitatik zetorren ezkutatzeko eta, ostera, dirdira eta luxua luzitzeko enblematzat. Zerbitzuen eta turismoaren hiria omen da ja Bilbo, langabetuena. Bizkaiko aberatsek euren buruari egindako monumentua zen Guggenheim, irabazleen omenez egina, amnesikoa eta utopikoa. Gehiengoak krisi ekonomikoa jasaten zuen bitartean, *Banco de Vizcaya* eta *Banco de Bilbao* elkarrekin batu ziren 1988an, *Iberdrola* sortu zen 1992an: aberatsak aberastenagotzen ari ziren, eta Guggenheim, eurak titaniozko estartetan gora zerura bidean zihoazela erakusteko modua zen.

Baldin 80ko hamarkada ipuingintzarena izan bazen, 90ekoa nobelarena izango zen. Bernardo Atxagak, *Obabakoak* fantasiako ipuinez betea gauditutzat eman eta, 1993an, *Gizona bere bakardadean* argitaratu zuen, errealismoaren bidetik azkenaldiko borroka armatua interpretatu nahirik. Anjel Lertxundik *Otto Pette* aurkeztu zuen hurrengo urtean, azkenetan den gizonaren bizitza erreposoa Erdi Aroan. Eta Ramon Saizarbitoriak, ia hogeitaz eleberririk argitaratu gabe egon ondoren, *Hamaika pauso* atera zuen 1995ean, Angel Otaegi erreferentziatzat hartuta, eta *Bihotz bi* hurrengo urtean, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko komunikazio eskasaz, eta, *Hanbre* jatetxean elkartzen diren lagunaren solasen bidez, gerra zibilaz.

Ipuingintza ez zen desagertu, hala ere: Edorta Jimenezen *Atoiuntzia* (1990), Pablo Sastrenen *Mariaren mendea* (1992), Juan Gartziazen *Itzalez itzal* (1994), Pello Lizarralderen *Sargori* (1994), Pako Aristiren *Autoestopeko ipuinak* (1994), Arantxa Iturberen *Lehenago zen berandu* (1995), Patxi Iturriegiren *Haize kontra* (1996), Xabier Montoiaren *Gasteizko hondartzak* (1997), Harkaitz Canoren *Telefono kaiolatua* (1997), Hasier Etxeberriaren *Karramarroaren aztarnak* (1997), Javi

Cilleroren *Hollywood eta biok* (1999)... Saiakera eta memoria liburuak ez ziren atzean geratu: Eduardo Gil Beraren *Fisikaz honatago* (1990), Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak* (1992), Patziku Perurenaren *Leitzako errege-erreginak* (1996), Iñigo Aranbarriren *Zapataren oiha* (1998), Juanjo Olasagarreren *Mandelaren Afrika* (1998), Xabier Mendigurenen *Nerabearen biluzia* (1999)... Poesia liburu ederrak ere argitaratu ziren, merkatuak gero eta interes gutxiago erakutsi arren poesiarentzat: Gerardo Markuletaren *Larrosak noizean behin* (1990), Itxaro Bordaren *Bestaldean* (1991), Luis Berrizbeitiaren *Eremu karroinduak* (1992), Felipe Juaristiren *Laino artean zelatari* (1994), Koldo Izagirrereren *Non dago Basques' Harbour* (1997), Rikardo Arregiren *Kartografia* (1998)...

Musikari dagokionez, tresnen aldaketa aipatu behar da. Audio kaseten gainbehera gertatu zen 80ko hamarkadaren amaieran. 90ko hamarkadaren hasieran parekatu ziren CDen salmentak eta kasetenak Euskal Herrian. 1993ko urtean, berriz, CDen salmenta 5 milioikoa izan zen (%21eko hazkundera urte horretan) eta kasetena 3,4 milioikoa (%7ko jaitsiera urte berean). 1999an, saltzen zen musikaren %5 baino ez zegoen ja kaset formatuan.

Musika kopiatzeko erraztasun teknologikoarekin, musikagintzaren negozioa gainbehera zetorren, edo, hobeto esanda, aldatzen ari zen.

## OINAZEAREN SOZIALIZAZIOAREN SASOIA

1992an Bidarteko erorketa handiak amaiera eman zion ETaren historiako aldi bati eta berreikitako erakundearekin beste bat zabalduko zen laster. Arte horretan "kale borroka" sortu zen, ekintza militarrek sortzen zuten tentsioa mantentzeko kalean.

Alderdi politikoak ez ziren gauza izan arazoa negoziatzeko, haien zereginik behinena horixe izan behar zukeen arren. Bortxaren erabileran engaiatu ziren era batean edo bestean tarteko alderdiak ere: PSOE, GAL bidez batez ere, eta PNV, Ertzaintzaren bidez. Estatuaren aparatuen errepresioa eta kriminalizazioa itzela zen, frankismoaren sasoi gogorrean bezala, baina orain gizarte-sektore ondo markatu baten kontra. Tortura ohikoa zen, esate baterako, bere burua demokratizatzen jende askoren aipatzeko ezjakintasun babeslearekin. Presoekiko eta haien familiekiko mendekua ez zen harrezkero aintzat hartu ere egingo.

Alderdi politikoek, negoziazio politikoa konkretatzeko gauza ez zirenez, eta biolentziak soluziorik ez zekarrenez, enfrentamendu zibila bultzatu zuten. 1993tik aurrera, *Gesto por la paz* eta halako erakundeak antolatu ziren eta ETaren kontrako kale-mobilizazioak hasi ziren, instituzio eta komunikabide handien sostenguarekin. ETAk ere konfrontazio zibila asumitu zuen eta, lazo urdinaren manifestazioen parean, errepresioaren kontrakoak hasi ziren egiten aldi berean, edota alderantziz. Enfrentamendu zibila bultzatzeko estrategia horretan, intelektual sektore bat ere

indartu zen Espainian anti-baskismoa ogibide bihurtu zuena. Ezker abertzalearen partetik ere, "oinazearen sozializazioa" bezalako kontzeptu arraroak formulatu ziren.

1995ean "Alternatiba Demokratikoa" planteatu zuen ETAk, baina borroka armatua gogor-  
tzearekin batera. Gainera, ekintzak politikarien kontra zuzendu zituen: 1978tik 1995era arte,  
623 hildakotik 10 ziren politikariak (%1,6); 1995etik aurrera, 93 hildakotik 26 ziren politikariak  
(%28). 1996an Jose Maria Aznarrek irabazi zituen hauteskundeak eta larriagotu egin ziren  
gauzak. Ezker abertzalea kriminalizatzea eta marjinalizatzea zen Estatuaren estrategia, baina  
batez ere independentismoa deslegitimatzea. Sentimentu anti-euskaldunak ikaragarri bortiztu  
ziren Espainian; "ez-nazionalista" bezala definitzen ziren, gainera, espainiar nazionalismo baz-  
tertzailearen aldekoak, espainiar nazioaz aparteko edozer proposatzea nazionalismotzat hartuz,  
txorakeria hutsa eta terrorista balitz bezala. Konstituzionalismoa indartu zen, izen eta teoria oso  
arraroa ultra-nazionalismo espainolarentzat, zeren abertzaleak ere konstituzionalistak izango  
bailirateke Euskal Herri independente batean.

1997an larriagotu egin ziren gauzak, eta urak gainez egin ere, ETAk Jose Antonio Ortega  
Lara hain luzaroan bahitu eta, hau poliziak libratu ondoren, Miguel Angel Blanco bahitu eta be-  
rehala hil zuenean. ETaren kontrako protestak izan ziren eta, biolentziarekin gogaituta zegoen  
jendearekin batera, errepresioaren funtzionario asko mugitu zen kamuflatuta biolentzia bultzatu  
nahian. Lintxamendu dei eta saiakerak egin ziren, enfrontamendu zibilerako baldintzarik ez zegoen  
arren. Prentsa espainolak *Espiritu de Ermua* deitzen zuen hark bazuen konponente intelektual  
bat ere: Konstituzioa demokrazia zen eta abertzaletasuna terrorismoa, nahiz eta euskaldunen  
artean minoritarioa izan Konstituzioari baietza bere sasoian. Ofentsiba espainol horretan, ezker  
abertzaleaz gainera, bide batez, PNV, EA eta are IU ere, intelektualki behintzat, kriminalizatuak  
izan ziren, epelak zirelakoan.

1997an Estatuak ezker abertzale zibilaren kontrako eraso zabala hasi zuen, legez edo legerik  
gabe, edota legeak *ad hoc* sortuz kasurako. Espainiako Auzitegi Gorenak HBko mahai nazionala  
kondenatu zuen, eta 1998an Baltasar Garzon epaileak *Egin* egunkaria eta irratia ere itxi zituen.  
PNV ere hormaren kontra geratu zen, PP eta PSOEn ofentsiba larriaren aurrean. Jendea ez zegoen  
enfrontamendu zibilerako prest, baizik eta alderantziz, era guztietako bortizkeriarekin gogaituta.

Alderdiek egoera aztertu behar izan zuten eta irtenbide bat bilatu. Orduan, ETak tregua eman  
zuen eta Lizarrako Ituna aurkeztu zen: PNV, HB, EA, IU, Zutik, Batzarre, beste sindikatu eta he-  
rri-mugimenduak agertu ziren euskal arazoaren soluzio politiko bat eskatzen. Ezker abertzaleak  
EH (*Euskal Herritarrok*) sortu zuen, urtetan galdutako jende asko erakarriz berriro. Udalbiltza  
ere sortu zen zazpi lurraldeetan, zerbait izateko asmoarekin, indar politiko desberdinen arteko  
kontraesanen gainetik.

ETAk paktua hautsizat eman zuen 1999ko azaroan, ustekabean, batetik Espainiako Gober-  
nuak ez zuelako ezer negoziatu nahi, eta, bestetik, PNVk eta EAK ez omen zutelako bete akor-

dio sekreturen bat. PNVrentzat zaila zen boterearen komoditatea utzi eta, botere-kuota txikiak ere galtzeko arriskuarekin, helburuak eskuratzeko ziurtasunik gabeko abenturan sartzea. Ezker abertzalearentzat, behin Lizarrako atea itxita, beste hamarkada gogor bat zetorren. Dena dela, euskaldungoa gero eta gogaituago zegoen bere politikariek.

Beraz, milaurtearen amaierako Liburu Azoka, txori politiko ilunak gainean hegan ari zirela zelebratu zen.



Mende berriko  
ilusio  
eta desastreen  
artean



## MENDE ALDAKETA

*“Eta ilusio hori, mende aldaketaren data magikoan zifratzen zena betetzeko, hain zen indartsua ze askok poz aldarriak botatzen zituzten gizaldi berriagatik, ukitu orduko oraindik, eta beste batzuek azkeneko txorakeria egiten zuten amaitzen ari zen mendean, etxe batetik bestera mudantzan ari balira bezala, eta bi jokabideon artean alde handirik ez zuen inork nabarmentzen...”*

Hala zioen Robert Musilek *Ezaugarriak gabeko gizona* nobelan. Baina, mende aldaketa noiz gertatu zen?

Historiagile batzuek XX. mendearen azken hamarkada XXI. mendearen lehenengo hamarkadatzat hartzen dute. Eric Hobsbawmen ustez, esate baterako, XX. mendea 1914an hasi zen, Lehen Gerra Handiarekin batera, eta 1991n amaitu, Sobiet Batasuna erori eta zatitu zenean. Beste historiagile batzuentzat, XXI. mendea 2001eko irailaren 11n hasi zen, New York eta Washingtonen izan ziren ustekabeko erasoekin. Astearte hartan, islamistek linea-hegazkinak norabidetik atera eta misil biziak balira bezala lehertarazi zituzten Estatu Batuen boterearen eraikin enblematikoen kontra. Sinbolo ekonomikoa (*World Trade Center*), militarra (Pentagonoa) eta politikoa (Etxe Zuria) kolpatzea zen helburua, nahiz eta laugarren hegazkina Pensilvanian erori zen Presidentearen egoitzara heldu gabe.

Arrazoia biei batera emanez gero, ondoriotzat aterako litzateke 1991ko abuztutik hasi eta 2001eko irailera arte, parentesi artean bezala, mendez kanpo ibili zela mundua. Baina arrazoikoagoa da pentsatzea 1989ko Berlingo Harresiaren erorketarekin hasitako prozesua 2001eko irailean azeleratu zela. George Bush presidenteak ofentsiba ikaragarri gogor, lurraldez zabal eta denboran amaierarik gabeko bat programatu zuen, eta Estatu Batuen mendekua itzela izan zen, bere territorioan sekula jasandako lehen erasoaren ondoren. Mendekua Afganistango talibanen aurka zuzendu zuen lehenengo, han ezkutatzen omen zelako Osama bin Laden, eta Afganistan suntsitzen zuten artean hurrengo eraso-gaien zerrendak prestatzen ari ziren: Irak, Iran, Siria, Yemen, Sudan, Korea, Libia, Kuba, Venezuela eta abar.

“Gaizkiaren Ardatza” deitu zioten gaiztoak omen ziren eta erasotzeko modukoak ziren Estatuaren zerrendari. Estatu Batuei desobeditzera ausartzen zen gobernua bazekien kriminalizatua izango zela eta, goiz edo berandu, erasoko zutela ekonomikoki edo militarki. Estatu Batuek, beren alia-

tuekin batera, frente ekonomikoa, frente militarra eta frente ideologikoa martxan zituzten mundu osoa kontrolatu eta merkatupean ipintzeko plan estrategikoarekin. Afganistan azpiratu ondoren, nazioarteko politikan petrolio garrantzitsua denez gero, Irak bihurtu zen hurrengo gaizto erre-mediorik gabea.

2002. urtean zehar ingelesez gehien erabili zen sintagma *weapons of mass destruction* izan zen, "erabateko suntsidurako armak", eta hurrengo urteko martxoan ikusi zen erabilera horren utilitate konkretua, Estatu Batuek Irak errautsi eta okupatu zutenean, eta masa-suntsidurarako armarik aurkitu ez zutenean, salbu eta okupatzaileek eraso horretan erabilitako ugariak. Bereter bereziak izan zituen Bushen Irakeko konkista eta okupazio prozesuan Jose Maria Aznar eta Tony Blair, giza eskubideen izenean giza eskubide guztiak hausteko eta desastrea multiplikatzen gaizto zirela erakutsirik hirurek.

Bereter biak ere politikari figura paradigmatikotzat geratu dira, Bush ez da luzaroan ahaztua izango. George Bushen, Alderdi Errepublikanoaren izenean, Al Gore demokratearen kontra irabazi zuen presidentzia hauteskunde orokor eztabaidatu batzuetan hamarkadaren hasieran, eta ondoren John Kerryri irabaziko zion 2004koetan. *Bushismoa* deitu da gero politika egiteko estilo bat, eta haren diskurtsoetako hizkera ere, ondo sinplea eta zantarra. Gezur interesatuz ondo hornitua agertzen zen beti Presidente, hala nola Nazio Batuen Erakundeak deklaratu zuenean Estatu Batuek konpromiso handia zutela hartuta tortura desagerrarazteko eta, gainera, borroka horren buru zirela beste guztiei erudia emanez. Baina haren diskurtso hantuetako nahigabeko okerrak dira batez ere bushismoak:

*"Our enemies are innovative and resourceful, and so are we. They never stop thinking about new ways to harm our country and our people, and neither do we."*

(Gure etsaiak berritzaileak eta azkarrak dira, eta gu ere bai. Gure herriari eta gure jendeari min egiteko modu berriak asmatzen ari dira etengabe. Gu ere berdin).

## GIZA ESKUBIDEAK ETA GIZA DESASTREAK

Lapur bandaren etika nagusitu zen nazioarteko politikan, eta ekonomian ere bai. Enpresa edo Estatu multzo baten onura bilatzen zen, besteekiko inolako gupidarik gabe. Diskurtso humanistak talde barrurako balio zuen bakarrik. Giza eskubideen defentsa bezala bizi ziren, Mendebaldeko medioetan, giza eskubideen urradurarik larrienak eta herrialde zabaletan probokatu zen hondamendia. Bortxa eta sarraskia era harrigarrian banalizatzen ziren, gainera, medio horietan.

Adibidez, 2008ko Miss Unibertso Dayana Mendoza venezolarra (zeinak deklaratu zuen behin William Shakespeareren musika gustatzen zitzaizola) Guantanamo itsasontzi-basean egon zen, Estatu Batuetako gobernuak gonbidatua. Amerikanoek gatibu zituzten han islamistak, kaiolatan sartuta, inolako prozesu legalik gabe eta nahieran torturatzen zituztela. Detenituen zeldak eta dutxak bisitatu omen zituen Dayana Mendozak; han omen zeuden "terroristak", oso lasai denak, pelikula

amerikanoak ikusten, arte-plastiko klaseak errezibitzen edo liburuak irakurtzen. Dena oso interesantea zela idatzi zuen gero Dayanak bere blogean, Guantanamo badia *relajantea* eta ederra zela.

Egun batetik bestera, Cesaria Beccaria baino lehenagoko garaira eraman zuen zuzenbidea Mendebaldeko oligarkiak. 2001eko irailaz geroztik, medioen manipulaziorako bulego bereziak ere sortu zituen Pentagonoak, bereziki espezializatuak nazioarterako informazio faltsuak zabaltzen. Eta globalizazio neoliberalak zoriona planeta osora barreiatuko zuela sinestarazten jarraitzen zuten medioek. Baina balizko zorion hori denon oharkabetasun handian eta gehiengo menperatuaren morrontzan oinarritu behar zen, eta hori ezin zen lortu bortxa gogorki erabili eta sufritu gabe.

2000ko hauteskundeak PPK irabazi zituen gehiengo absolutuarekin. 2001ean zerbitzu militar derrigorrezkoa amaitu zen ofizialki, aurreko hogeituro urtetako intsumisio borroka luzearen ondoren. Baina ilusioaren ondoren desastrea helduko zen laster: Espainiak bere armada profesionalarekin Bushen "gerra amaiezinean" eta Sortaldeko okupazioetan militarki ere parte hartu ondoren, 2004an atentatu odoltsu batek 191 hildako eta 1800 zauritu eragin zituen Madrileko trenetan. Aznarrek ETArri egotzi zion atentatuaren egiletza, baina gezurra argitu zenean, ikusi zenean sarraski hura Aznarren gerra-politikaren ondorio zuzena zela, Zapaterok irabazi zituen hauteskundeak.

2002an hasi zen euroa erabiltzen Europan, baina ekonomia ez zihoan hoberantz. Globalizazioak, politika neoliberal-kontserbadorearekin, espekulaziorako diruarekin, ekonomia birtuala puztu bat indartu zuen eta, momentu batean, burbuila hori lehertu egin zen. John Kenneth Galbraithen aspaldian abisatu zuenez, pertsonaiarik miretsienak izaten dira goi-mailako finantzatan katastrofeen antolatzaileak. Tom Wolfek *Banitateen sutea* nobelana azaldu zuen bezala, epe laburreko irabazien kalkuluekin aberastasunean eta iriotean bizi zen bankarien aristokrazia.

2008an Wall Street erori zenean, amaitu zen neoliberalismoaren Urrezko Aroa, 80ko hamarkadaren hasieratik nagusi zen merkatuaren fundamentalismoarena, kapitalismo finantzarioak denontzako zoriona zekarrela aldarrikatzen zuena. Dirua balizkoa zen gehiena: 200.000 milioi euro lurrundu omen ziren berehala krisia anuntziatu zenean. Etxebizitzaren prezioak ere harrigarriak ziren, baina inor ez zen beldurtzen, merkatuak dena konponduko zuela erlijio natural moduan sinesten zelako.

Neoliberalismoaren arabera, negozio handiei ez omen zitzaizkien zergarik ezarri behar, eta Estatuak ez omen zuen parte hartu behar ekonomian. Baina George W. Bushen Gobernuak ekonomian parte hartzea erabaki zuen finantza erakundeak eta enpresa handiak erreskatatzeko, lagun oligarkak laguntzeko. Mendebaldeko gobernu guztiek kopia zuten zutena hurrengo urteetan. Agerian uzten zen horrela ideologia neoliberalaren zintismoa: irabaziak pribatizatu behar ziren eta galerak sozializatu.

Enpresen arrazionalizazio prozesua ere galera handi bat izan zen langileria-erantzutik eta urte askotako sindikalismo-erantzutik, krisia gainditzeko aitzakiarekin egin zen arren: lanpostuak gutxitu, soldadak jaitsi, lan eritmoak areagotu eta, enpresariaren komenientziaren arabera, enpresak deslokalizatu...

Ekonomia gangster gisa gobernatzen ziren bankuen eskuetan zegoenez gero, Estatuak banku gangster horiek babesten zituen. Jende horiek agintzen zuten ekonomian eta, azken batean, politikan. Eta ezkerrek ez zuen benetako alternatibarik.

## HURRENGO MILAURTEAN JA

*Lezioni americane* izenarekin argitaratu zen Italo Calvinok 1985ean hil orduko erdi idatzita utzi zituen hitzaldien testua. *Hurrengo milaurterako sei proposamen* ere deitu izan da testamendu literario hori. Milaurte berrirako idazketarako proposatzen dituen sei ezaugarrien ordena ez da aliritzikoa. Garrantziaren araberrako hierarkian aipatzeko: (1) arintasuna (*leggerezza*): sobredeterminaziorik eta larritasunik gabe azaldu behar dira irudiak, soinuak edo pentsamenduak; (2) lastertasuna (*rapidità*): ideien eta gertaeren bizkortasuna, argudioen eta adibideen ekonomia zaindu behar da; (3) zehaztasuna (*esattezza*): bizitzaren xehetasunak arakatu behar dira, bizimoduaren zentzugabezia konprenitzeko eta galderak egiteko, baina egiak antzemateko ere bai; (4) ikusgarritasuna (*visibilità*): espektakuluaren gizartean inportantea da bistara ekartzea bestenez bisibilitaterik ez duten gauzak, pertsonaiak eta situazioak; (5) multiplizitatea (*molteplicità*): obra borobila lortzea baino interesgarriagoa da, beharbada, ikuspuntu eta tonu aniztasuna islatzea; (6) koherentzia (*coerenza*): bizitza gertaera bitxien sekuentzia eta nahaste-borrastea da, baina, literatura egiteko, gidoiaren haria antzematen jakin behar da, hasiera, amaiera eta zentzua emanez testuari.

Internet historiaurrean zegoen oraindik Calvinok 1985ean joera horiek igarri zituenean, baina jadanik zerbait sumatzen zuen mundu azeleratu eta zatitu honetaz, eguneko 24 orduko komunikazio fluxu zabal, sakabanatu eta etengabeaz. Informazioaren abiadurarekin, liburutegia edota diskotegia katalogo besarkaezinak ziren ja. XXI. mendearen hasieran dena arina eta bizkorra den arren, eta aniztasuna begibistakoa, dena zeharkatzen du kontsumoak. Literatura, musika, argazkia edo artea gero eta eskuragarriagoak dira, eta ematen du mundu guztiaren gauza izatera pasatzen ari direla, erogarriak direlako. Baina dena aldatzen da etengabe, naturaren zikloekin bezala: negua, udaberria, uda, udazkena. Orain modaren sasoiak dira, merkatua berriztatzeko planak markaturiko komertzioaren zikloak: zaharkitze programatua.

Gainera, aldaketa demografikoen ondorioak nabarmenak dira euskal kulturaren ere. 60ko eta 70eko hamarkadetan, eta 80koan oraindik, gazteak gehiago ziren eta 15-30 urte arteko gazteak sortu zituen eredu kulturalak. 90ko hamarkadaz gerotik, berriz, batetik, adin horretako gazteak erlatiboki gutxiago dira eta, bestetik, aurreko hiru hamarkadetako jendeak eredu kulturalak mantendu ditu, gazteak bigarren planoan utzirik. 1975eko euskal literatura 15-30 urteko gazteentzat idazten zen gehiena, gaur egun haur literatura eta heldu literatura egiten direla ematen du, 15 urtetik beherako umeentzat eta 30 urtetik gorako helduentzat egiten dira liburuak. XXI. mendeko gazteak garrantzi erlatibo gutxiago du aurreko belaunaldietakoak baino? Aldaketa demografikoak ondorio politiko eta ideologikoak ditu apika. XXI. mendeko gazteek motibazio gutxiago dute aurrekoek baino? Ematen du baietz, aldaketa proiektu orokorrik ez dagoenean normala denez. Antzinako gazteek eredu literario eta kultural indartsuak sortu zituzten, baina jende hura ja heldua da edo, sinpleki, zaharra. Haien kontrakulturak, gainera, integratuta daude eta ja ez dira gauza ez zentzu iraultzailerik ez identitate berezirik eragiteko: ikurrina edo *Che* Gebararen aurpegia, tatuajeak edo kalamua. Sinbolo kontrakultural horiek produktu-marka antzeko zerbait bihurtu dira eta, enblemak eta kontsignak gorabehera, bizimodu kontserbadore baten parte dira. Inoiz alda-

keta politikoaren alde ahalegindu zen gazteria, inkonformismo heldu pasibo batean laketu zen aspaldian. Helduak nagusi izateak ez die mesederik egiten ez gazteei, ez gizarte osoari orokorrean.

Poesiarik? XX. mendeko poesiak berrikuntzaren bat bilatzen zuen hizkeran, eta autorea bakar-dadean geratzen zen. Horrela, testu arraroak eta irakurle gutxi lortu zituzten. XXI. mendeko poesiak publikoarekiko komunikazioa lehenesten du, ez liburu itxietan geratzea, baizik eta irakurleen bila irtetea. Poeta asko, Artzek egin zuenez *Ez dok Amairurekin* edota Bernardo Atxagak *Henry Bengoarekin*, antzekizun audiobisualen bidez hurbildu dira publikoarengana: Kirmen Uribe, Harkaitz Cano, Gotzon Barandiaran eta abar.

Horiez eta aurreko hamarkadetako ez gainera hainbat idazlek argitaratzen dituzte liburu go-gangariak mende berriaren hasieran: Miren Agur Meabe, Iban Zaldúa, Karlos Linazasoro, Unai Elorriaga, Jon Benito, Ixiar Rozas, Karmele Jaio, Eider Rodriguez, Ignazio Aiestaran, Anjel Erro...

Eta hip-hopik? 80ko hamarkadaren hasieran jaio omen zen hip-hopa New Yorkeko auzo pobreetan, reggae eta funk musikaren arteko nahastetik eta gauzak kontatzeko behararekin, eta bazterrik bazter hasi zen hedatzen. 90ko hamarkadaren hasieran *Public Enemy* taldearen aldarriak ja zentro askotara heltzen ziren. Euskal musikara ere heldu ziren, *Negu Gorriak* taldean oihartzun egiteko moduan. Baina euskal rapa milaurte berriarekin hasi zen, berez, *Selektah Kolektiboarekin*, gero *Mak* taldea heldu zen Iparraldekoa, *Norte Apache* Bilbokoak, eta *121 Krew* eta *Maisha MC* Barakaldokoak.

Hip-hopa ez da bertsolaritzarekin nahastu, baina euskal musikak aurreko hamarkadetan pilaturik aniztasuna eta kalitatea erakusten du. *Oskorri* erretiratu behar izan da, historia emankorraren ondoren, eta musika ez da ja larrosabide bat ogibidetzat duenarentzat, baina ez dago gaizki entzulegoarentzat. Mila kontzertu txikitik aurkezten da, baina jaialdi handi batzuetan ere bai, urtero uztaila hasierako hiru egunetan ospatzen den *Euskal Herria Zuzenean* delakoan esate baterako: Arrosan egin zen 8 urtez (1996-2003), Iduze-Mendin 5 urtez (2004-2008), Heletan 3 urtez (2009-2012) eta Lekornen egiten da 2013tik aurrera. Balio euskaltzale eta ezkerrekoekin, elkartasunean eta bolondresgoan oinarritzen da antolaketa ere.

Eta euskal zinea? 2003ko Donostiako Zinemaldian estreinatu zen Julio Medemen *La pelota vasca*, eta arazoa soluzionatzeko euskaldun gehienek borondatea adierazi zuen; baina alderdiek bakoitza bere egoskortasunean jarraitzen zuten. Zapateroren gobernuarekin, Egituren eta Otegiaren arteko elkarrizketei jarraituz, negoziatzeko ahaleginak egingo ziren gero.

Aljerreko negoziazioetan, 1988an, erresistentzia armatua uztearen truke Estatuak autodeterminazio eskubidea onartuko zuela pentsatzen zuen ETAK. Lizarrako mahaian ere, 1998an, borroka armatuaren disfuntzionalitatea ja nabarmena zenean, burujabetasunerako konpromiso bat hitzartu nahi izan zuen alderdi abertzaleekin, Espainian onartuko ez zela jakin arren. Loiolako negoziaketan, 2006an ja, ETAK oker kalkulatu zuen berriro, Zapateroren Gobernuak presoak askatzeko prest zegoenean lau probintzientzat autonomia estatutu bakarra exijitu zuenean borroka armatua uztearen truke. Barajaseko T-4 aireportuan egin zen atentatuak aurreratu zuen abenduan, hurrengo udan deklaratu zen treguaren etendura.

2010



2015

*Krisi  
ekonomikoa  
ala tendentzia  
orokorra?*

## KRISI EKONOMIKOA?

2010ean Espainiako selekzioak Munduko Futbol txapelketa irabazi zuen Holandakoaren kontra. 2011n PPK gehiengo absolutuarekin garaitu zituen hauteskundeak, eta Mariano Rajoy bihurtu zen presidente.

2008ko krisiak gogor jarraitu zuen. Eta galdera bat egin behar zen ja: krisi ekonomikoa da, ala tendentzia orokorra?

Josep Fontanak erakutsi duenez, langile-sindikatuaren lorpen asko burgesiaren herriaren beldurratik eman ziren. Edozein momentutan dena kenduko ziotela, mundua aldatu eta jabegoa galduko zutelako, klase dominanteak mamuen beldurrez ibili izan dira beti: jakobinoak edo masoiak, anarkistak edo komunistak. Iraultzaileon indarra alegiazkoa zen gehienetan, baina beldurra benetakoa. Eta sektore sozial dominanteak, beldurrez iraultzak sistema guztia uzkailek zezan, kontzesio sozioekonomiko eta politiko asko egin zituzten. Bismarck izan zen, Alemanian, amore ematen lehenengoa. Eta Bigarren Mundu Gerratik landa ongizate gizarteak eraiki nahi izan ziren Europa kapitalistan. Kanpoko eta barneko komunismoaren mamuari esker lortzen zituzten langileek eskubide laboral eta politiko asko, aberatsei orden soziala ziurtatzearen truke.

Harik eta aberatsek beldur hori galdu zuten arte. Komunismoaren mehatxua desagertu eta ja herria errebelatzeko gauza denik inork ez duenean uste. Josep Fontanaren hitzekin esateko:

“Zein iraultzari izango diote beldurra ba gaur egun bankariek? Ez dute batere beldurrik, eta hala jarraitu dute beren taldea aberasten eta pobrezia orokortzen. Zeren eta krisia oso desorekatua da: pobreek jasaten dute bakarrik, ez aberatsek.”

Gaur egun klase nagusiek ez dute batere beldurrik. Enpresariaren aparatua ekonomikoak kontrolatzen dituzte botere politikoa eta komunikabide ia guztiak. Jimmy Carter presidentearekin ja nabaritu zen Estatu Batuetan aberatsen erasoaren jende xehearren kontra, kontsumitzaileak babesteko

erakundea oztopatu zenean, baina Ronald Reaganekin hasi ziren zergen eta sindikatuen kontrako ekintzak. Ordurako ja enpresariak subentzionatzen zuten batez ere Alderdi Demokrata, ez sindikatuek. Ingalaterran, Margaret Thatcherrek altxatu zuen aberatsen gerra-bandera meatzarien kontra. Espainian, Felipe Gonzalez ez ezik, Jose Maria Aznar eta Rajoy ere jardun dira aberatsendako gizarte baten alde, pobreen kontrako gerran.

Beraz, ez da epe laburreko krisi bat, laster erremediatuko dena. Krisiaren ideiarekin aldaketa sakonago bat estaltzen da herriaren kontrako aberatsen estrategian. Adibidez, Hezkuntza Ministro batek esplikatzen duenean krisiak dirauen artean hezkuntza ezin dela izan dohainik mundu guztiarentzat, beste hezkuntza sistema bat ari da proposatzen etorkizunerako: sistema bat zeinetan bakarrik ikasketak ordaintzeko gauza denak jasoko duen hezkuntza-zerbitzua, estudiatu duen jendea behar delako klase-gizartean, baina apenas estudiatu ez duen jendearen eskulana ere ezinbestekoa delako ekonomia desiguala sostengatzeko. Krisiaren aitzakiarekin gizarte eredu bat proposatzen da, gutxiengo bati ongi izateko aukera eskainiko diona, eta gehiengoari, aldiz, ozta-ozta bizitzekoa.

Eta krisi egoeran ikusten denez, sektore batzuk bereziki kalteturik aterako dira, adibidez gazteria. Gazteek ez dute etorkizun ederrik ikuspegiari, askok ezta lana izateko aukerarik ere, eta protestatuko dute beharbada, baina 68ko maiatzean protestatu zutenek bestelako bizimodu baten aldeko ilusio handia zuten. Eta ilusioak desinflatu zirenean ere, integratu zirenak laster heldu ziren pribilegiatuen goi-mailetara ere. Gaur egun, protestatu zein ez, integratzea (aberastea, alegia), nahita ere, zailagoa da.

## KRISI POLITIKOA?

Kapitalismoaren promesa —inbertsioek eta merkatuek gizarte osoa ongizatera eramango dutela— gezurra dela ikusten da. Halakorik pretenditu ere ez du ja ia inork egiten, aberatsak euren esparruak harresiz babestearekin konformatzen dira, gainerakoa arduragabeziaz edo burlaz hartzen dutela, izan Pariseko bazter auzo bat edo izan Afrika gehiena.

Frakasotzat hartuko lukete XVIII. mendeko filosofo ekonomiazaleek hainbeste polizia eta hainbeste gerraren beharra, baina ez da hondamendirik pribilegiatuentzat. Bankariak errealitatearekin konformatzen dira espekulazio finantzarioetatik atarramendu onak izanez gero eta, gehiengo ezerian bizi arren, ez dute sistema zuzentzeko batere borondate politikorik.

Ezkerra, bere aldetik, proiekturik eta ilusiorik gabe dago aspalditik, sistemari alternatibarik eskaintzeko gauza ez dela. Ez da lehenengo porrota, ezkerrarentzat Trantsizioa ere osatu gabe geratu baitzen: 60ko eta 70eko hamarkadetan diktaduraren kontra ari zen jende gehienak aldaketa askozaz ere erradikalagoa espero zuen behintzat. Sistema komunistaren porrot globala lauza bat bezalakoa izan da: Txinan, adibidez, bere burua komunista deitzen duen gobernuarekin, ekonomia produktiboan behintzat kapitalismorik harrapariena da nagusi. Ez estalinismoa bakarrik, ezker guztia lekuz



kanpo bezala geratu dela ematen du, ezker erradikala eta sozialdemokrazia ere. Orduan, ezkerrek negatibitate moduan jokatzeko du hala praktikan nola teorian, Syriza alderdiaren gobernuarekin Grezian ikusi den bezala. Ematen du sistema kapitalistaren oker larrienak konpontzen ahalegindu behar dela, benetako alternatibarik gabe.

Euskal Herrian, Estatuak ETAren borroka armatu ja guztiz disfuntzionala profitatu zuen politika anti-euskalduna ezartzeko: presoek eta haien senideen kontrako mendekua, ezker abertzalearen kriminalizazioa eta debekua eta, oro har, independentismoaren kontrako kanpaina zabalak. Lortu zuten, besteak beste, Nafarroan politika absolutuki anti-euskalduna finkatzea eta beste hiru probintzietan Patxi Lopez ipintzea gobernuburu 2009tik 2013ra arte, Batasunaren ilegalizazioa profitatuz. Ziudadaniaren apologia egin zuen inbestiduran, ziudadaniaren parte handi bati esku-bideak ostuta lortu ondoren kargua. Hurrengo hauteskundeetan EAJk eta Bilduk jasoko zituzten herritarren bozka gehienak eta EAJko Iñigo Urkullu bihurtuko zen lehendakari.

Borroka armatuak nazionalismo espainolari egiten zion mesedeaz ohartuta, Ezker Abertzalearen barruan estrategia politiko-militarra aldatzearen aldeko iritzia ugaltu ziren. Estatuak Arnaldo Otegi eta beste asko atxilotu zituen aldakuntza politiko hori eteteko, baina esan daiteke militante politiko horiek lortu zutela beren helburua, Otegi bera 2009an preso hartu eta 2015ean ere oraindik preso daukaten arren.

2010eko irailaren hasieran, ETAk eraso-ekintza armatuak utziko zituela jakinarazi zuen BBC Erresuma Batuko telebista publikoaren albiste nagusian, nazioartean kokatu nahirik mezua. 2011ko urtarrilean eman zuen ETAk su-etan orokor eta iraunkorra, eta urrian adierazi zuen bere jardun armatuaren amaiera. ETAren erabaki horrek, aurreko treguek ez bezala, ez zion baldintzarik ipintzen inori eta mundu guztiak konprenitu zuen behin betikoa zela. ETAren erabakia ez zen Espainiako Gobernuarekin izandako negoziazio baten ondorioa, ez zen barne kontraesanik gabe gertatu, eta ezin da alde bakarreko erabakitzat hartu: Ezker Abertzaleak eginiko eskakizunei erantzuten zion, nazioarteko eragileekin laguntza bilatzen zuen eta, azken batean, euskal gizarteari ematen zion protagonismo politikoa.

Estatuari borroka armatuaren arazoa alaitzen zarratzea komeni zitzaiola pentsatzen zuten batzuek, eta, batez ere, presoek eta senideen kontrako neurri bereziak laster bigunduko zirela. ETAk borroka armatua utzi ondorengo bost urteetan frogatu da ezetz, agerian geratu baita Estuari komeni zitzaiola borroka armatu ahul eta noragabe hori eta terrorismoaren mamua haizatzen jarraitu duela gatazka bera ukatzeko eta beste problema asko estaltzeko. Espainiak galtzaileei baldintza kaudinoak ezartzen dizkie, biktimismoaren diskurtsoa inposatuz denak Estatuaren bortizkeria gurtia haldunaren legimitate moralaren uztarririk pasatzen ezazteko. Gatazkaren errelatoaz hitz egiten da, baina batzuek egiak kontatu ditzakete eta beste batzuek ez, edo fiskal prestuen begiradapean daude, duela berrogeita hamar urte bezala.

Artean, Euskal Herriko alderdi politikoak ez dira gauza ohiko jokabide sektarioak bazterrean uzteko eta bestelako politika adostu bat proposatzeko. Ezker abertzaleak politika irekiagorantz

jo zuen, EA eta Alternatiba, Aralar eta beste eragileekin elkartzean. Baina, fase politiko berrian, alderdien sistemak berdintsu jarraitzen duela ematen du, botere autonomiko eta lokalen kudeaketarako norgehiagokari lotuta. Presoak oraindik mendeku-legislazioen menpe daudenean, herritarrak finantza espekulatzailen zerbitzuko sistema batek azpiraturik, eta protesta aldiz kriminalizatzen hasita, ez du ematen euskal alderdiek gizarteari eskaintzeko ezer berririk daukatenik ezkerreko poltsikotik ustekabea ateratzeko modukorik.

Krisi politikoa ez, tendentzia orokorra da, munduko politikarekin sintonian, baina ez da zertan ezinbestekoa izan. Adibidez, 2015eko hauteskundeetan, frankismotik zetorren Nafarroako errejimenaren erori da, ustelkeria ekonomikoan harrapatua. Hor bai, oposizioaren elkarrekin eta bestelako politika baten aukerak ilusioa eta esperantza piztu dute.

## KRISI KULTURALA?

Ziurtasun eta sinesgarritasun eskaseko aroa da, ideologia azkarrak ahuldu dira eta ez da ordezkorik heldu. Marguerite Yourcenarek esaten zuen, *Adrianoren oroitzapenak* idazten zuen artean, Zizeronengandik Marko Aureliorengana doan Erromako historia-zatia deskribatu nahi zuela, tarte horretan Jainko zaharregan ez zelako sinesten ja eta, aldi berean, Jainko berriengan ez zutelako sinesten oraindik. Edo igual bai, jainko berri oharkabeei loturik bizi gara beharbada, baina ez gara jabetzen oraindik. Eta galera asko gerta daiteke halako egoeran.

Pierre Bourdieu soziologoak, esate baterako, kulturaren galeraz abisatu zuen "Kultura arriskuan dago?" izeneko artikuluan. Bourdieuk Mendebaldeko artearen historia, eraikuntza eta autonomizazio prozesu moduan analizatzen zuen. Apurka-apurka, zientziaren alorra, artearen alorra, literaturaren alorra, musikaren alorra, autonomia irabaziz joan ziren botere espiritual, ekonomiko edo politikoetatik. Autonomiarako joera hori eten egin zen aldi larri batzuetan, adibidez Inkisiziopean edo Espainia frankistan, baina autonomia hori, hain astiro eta hain nekez lortutakoa, sekula ez dena segurua, demokraziaren oinarri kultural ezinbestekoa da.

Gaur eguneko munduan nagusi den logika neoliberalak merkatua baizik ez du aintzat hartzen, diru irabaziaren kriterioak erabiliz bai produkzio, bai banaketa kulturalen. Neoliberalismoaren hipotesia da merkatuak berez orekatzen dituela gauzak eta berrikuntza teknologikoek sostengatuko dutela ondasun kulturalen kantitatea eta kalitatea, beste kontsumo-gai guztiena bezala. Bourdieuk gogor kritikatu du ikuspegi hori, bereziki kompetentziak produkzioaren aniztasuna ziurtatzen duelako argumentua, oferta kulturala homogeneizatu egiten dela erakutsirik. Telebistan, adibidez, audientzia handitzeko, omnibus dei daitezkeen produktuak ugaltzen dira, edozein adin eta edozein herritako jendearentzako modukoak. Telenobelak, serieak, programa musikalak edo entretenigarriak: bata besteari kopiatuak, ikuslegoa gehitzeko karreran, McDonald's faktoriako janariaren pareko kultura zabaltzen da komunikabide nagusietan. Gainera, norgehiagoka horretan, produkzioa kontzentratu egiten da, kultura-produktore handiek txikiak irensten dituztelako, eta produkzioa banaketaren menpeko bihurtzen da, saltzen diren produktuek bestelakoen banaketa

eragozten dutela azkenean. Orduan, maila guztietan, imitaziozko eta kontsumorako produktu kulturalak zabaltzen dira, ustekabeak eta miresgarriak balira bezala aurkeztuak.

Baina benetako arteak sekula ez du eman epe laburreko irabazirik. Artearen historian, onarpena, arrakasta, irabazirik edo dena delakoa, postumoa izan da sarritan. Mendeak behar izan dira literatura den sistema hori osatzeko, eta berdin musikaren mundua eraikitzeko. Idazleak, musikagileak, irabazirik gabeko produktoreak dira gehienak. Baina publikoa ere menderik mende eta nekez eraiki behar izan da, ez da naturala ez irakurlegoa ez entzulegoa. Kulturaren mikrokosmos horien inboluzioa nabarmena da gaur egun, dena modu primario batean, modu ia ziniko batean, saltzeko produktu bihurtu denean.

Literatoak eta musikariak, editoreak eta artistak, ia galzorian dauden animalia espezie arraroen antzekotzat hartzen ditu Bourdieuk. Haien bizi-baldintzak, irabazien logikak kaltetuta, logika darwinista batekin, desagertu egingo lirarteke. Kultura, Bourdieuren ustez, arriskuan dagoen ekosistema bezala babestu behar da. Kultura produktoreak eta kontsumitzaileak ere desagertzeko ataka estuan dauden espezieak bezala zaindu behar dira.

Internazionalismo berri bat proposatzen du Bourdieuk kulturaren alde. Literaturaren eta musikaren autonomiaren alde.



Berroyeita hamar  
urte eta gero:  
etorkizuna  
azoka ezazagun bat da

## ZER OROITZEN DEN ONGIEN?

“Zer oroitzen duzun ongien?”, galdetu zion Alicek Erreginari, *Alice in Wonderland* eleberrian. “Nik, datozen asteetan gertatuko dena”, erantzun zuen seriooki Erreginak.

Etorkizuna ere gure denbora da. Gureak diren bezala iragana eta egungo eguna, gaur hau idazten ari naizena, edo beste gaur hori, lerro hauek irakurtzen ari zarenekoa. Geure denbora guzti hori da imajinatzen duguna, nahi duguna eta proiektuok lortzeko egiteko prest gaudena. Geure iragana, geure eguna eta nahi dugun etorkizuna gara.

*National Intelligence Council* (NIC), Inteligentzia Kontseilu Nazionala, *Central Intelligence Agency* (CIA) famatuaren analisi eta auresate geopolitikorako bulegoa da. Lau urterik behin, lehendakaritza berriarekin, informe bat aurkezten du. Barack Obamak 2013ko urtarrilean mahai gainean topatu zuen informe konfidentziala *Global Trends 2030: Alternative Worlds* izenarekin argitaratu zen gero. Hauek dira bere predikzioak:

1. Mendebaldea ahulduko da, botere emergenteen aldean. Estatu Batuek jarraituko dute bere dominazioa, baina Txina ekonomikoki indartsuagoa izango da. Eta nagusitasun militarra ere Estatu Batuek ez dute bakarrik gauzatu ahal izango.

Mundua multipolarra izango da (Txina, India, Brasil, Errusia, Sudafrika). Estatu Batuek eta bere aliatuek gaur munduko ekonomiaren %56 eragiten badute, hogeitau urte barru %25 baizik ez dute eragingo. Estatu Batuek eta Txina izango dira ekonomiaren lehen lerroak, eta aipatu Estatu emergenteak bigarren mailan egongo dira, Japon, Alemania, Frantzia edo Britainia Handiaren mailan. Baina Europak batasuna mantenduko duela ez da segurua, CIAren arabera.

2. Munduko komunitate nagusiak ez dira izango nazio-estatuak, baizik eta bestelako komunitateak, Internet eta sare sozialetan bildutakoak bezala. Eman dezagun *Facebooklandiak* mila mi-

lioi biztanle dituela edo *Twiterlandian* 800 milioi bizi direla, eta hori datu geopolitiko inportantea izango da, botere jokoan.

Jokaleku berri hori oso garrantzitsua izango da. CIAk abisatzen du teknologia berriak arazo bat izan daitezkeela, jende xeheak tresna berriok izango dituelako eskuan, gobernuen eta hiritarren arteko tentsioak eragiteko. Hiritarrek informazio eta askatasun gehiago dute, eta gobernuaren kontra egiteko ahalmena.

Aldi berean, CIAren arabera, tresneria elektroniko guzti horrek gobernuari ahalmen aparta emango die hiritarrak zaintzeko. CIAk Estatu Batuetako lehendakariari egiten dion proposamena da sor dezala zerbitzu ultra-sekretu bat sareak kontrolatzeko enpresa pribatuen gainetik.

3. CIAk mehatxu moduan ikusten ditu motibo ez-militarrak, eta geopolitika batez ere beste alorretan jokatu da. Gerrak izango diren arren, mehatxu ez-militarrak ere larriak izango dira: aldaketa klimatikoa, arazo ekonomikoak, kriminalitatea, gerra elektronikoa, baliabide naturalen agorketa...

Arazo larria izango omen da ura: munduko populazioaren %60 ur eskasian biziko da 2030ean eta, ondorioz, gatazka hidrológicoak izango dira. Hidrokarburoen inguruan, ostera, ekologistak baino baikorrak dira CIAko prospektibagileak. Lurpeko frakturazio hidraulikoari esker petrolio eta gasa errazago aterako direnez, Estatu Batuak auto-sufizienteak izango dira eta petrolioaren prezioa merketuko da.

4. 2030ean 8.400 milioi biztanle izango omen ditu planetak, eta populazio nahiko zahartua. Munduko populazioaren %30 hirietan biziko da. Pobrezia ere asko gutxituko da. Klase ertainekoak mila milioi omen dira orain, eta hiru mila milioi izango dira 2030ean. Elikadura ohiturak ere aldatuko dira, okela gehiago jango da, eta ondorioz kutsadura ere gehiago izango da.

## AMETSAK KOKATZEKO LEKU BATEN BILA

Berrogeita hamar urte interesanteak bizi izan ditugula ematen du. Ikusi dugu diktadura frankista erortzen eta monarkia borbonikoa altxatzen demokrazia homologatu baina eskas baten eskutik. Ezagutu dugu Elizaren eta euskal mundu tradizionalaren gainbehera. Ikusi dugu langile mugimendua eskubide batzuk nekez lortzen eta gero erraz galtzen. Ikusi dugu euskara, debekatuta eta ia galzorian zegoena, errekuperatzen, baina ez behar bezainbeste. Agertu zen feminismoa ausardiaz eta mantentzen da ausardiaz, eta atera dira harreman homosexualak armairuetatik. Nabaritu dugu sensibilitate ekologista hazten, kontsumismoa eta ingurugiroa ustiatzen den erritmo berean. Ezagunaren eta ezezagunaren kronika egin digute etengabe liburuek eta diskoek, tresna obsoletoak bihurtu direla dekretatu ondoren ere.

Automobilek eta hegazkinek, telefonoek eta ordenadoreek mundu guztiko gainerakoen bizi-lagun egin gaituzte, auzune bakar bihurtuz mundua. Baina historiaren batze eta uniformatze prozesuan, XIX. mendean Europa ipintzen bazen munduaren zentroan eta XX. mendean Estatu Batuak, XXI. mendearen hasieran ikusten da beste herriek ere badutela zeinek bere historia. Gai-

nera, McLuhanek auzune global bat imajinatzen zuen, eta gaur eguneko medioek lekurik gabeko komunitateak sortzen dituzte: munduko hiriburua ez da gehiago Paris, ez New York, baizik Internet, sarera konektatuen hiri berria. Hurbiltasun elektroniko birtualaz aparte, hala ere, sustrairik gabe eta distantzian garatzen dira harreman asko.

Gure gizaldiaren balantzea ezin da esan oso positiboa denik. Planetan bizi garen 7.000 milioetatik gehienek bizimodua badaezpadakoa da, subordinazio baldintzetan bizi gara, aldaketa aukera askorik gabe.

Eta etorkizuna? Uste genuen, beharbada, eskasia ekonomikorik gabe, beldurrik gabe, eta nahi genuena pentsatzeko eta egiteko aske biziko ginela honezkero, eta ez dugu guztiz azartatu. Baina etorkizuna dugu oraindik asmatzeko.

Anatole Francek esan zuenez, ametsak kokatzeko toki eroso da etorkizuna.

